

# AHOTIK at



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

N7 // MARTXOA\_MARZO2010

Emakume eta gazte  
Mujer y joven



## Aurkibidea //

**A**  
**U**  
**K**  
**I**  
**B**



|  |           |
|--|-----------|
| Editoriala – Editorial.....                          | 3 or.     |
| Kazetaritza generoak... eta genero kazetaritza ..... | 4-5 or.   |
| Hirigintza eta generoa .....                         | 6 or.     |
| Autodefentsaz bi hitz.....                           | 7-11 or.  |
| Prekarietatearen feminizazioa .....                  | 12-13 or. |
| Seis sindicatos, una pregunta .....                  | 14-17 or. |
| Emakume gazteak eta emantzipazioa.....               | 18-21 or. |
| Gorri egon, hilekoaren esanahiak.....                | 22-23 or. |
| Sareak josten: emakume antolatuak .....              | 24-25 or. |
| Eskubide errepraktiboak eztabaidegai .....           | 26-27 or. |
| Sexualidad: <i>Mujer joven busca</i> .....           | 28 or.    |
| Hezkidetza eredu heitzalea .....                     | 29 or.    |
| Feminismo y movimiento LGTB .....                    | 29 or.    |
| Lerro artean .....                                   | 30 or.    |

Argitaratzen dute\_editan:

Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua



[www.egk.org](http://www.egk.org)

Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

Laguntzaileak\_colaboradores:



Erredakzioa eta argazkiak\_Redacción y fotografías: EGK

Diseinua\_Diseño: Nemo estudio

Azaleko argazkia\_Foto portada: Zaloa Fuertes\_zaloa.fuertes@gmail.com



## Editoriala //

# Emakume eta gazte Mujer y joven

Aquí y ahora ser persona joven es sinónimo de estar en una posición social relegada, esto es, de tener menos oportunidades sociales que otra persona por el mero hecho de pertenecer a un grupo de edad distinto. El Consejo de la Juventud de Euskadi (EGK) está llamado a elevar la atención de la sociedad y de la clase política sobre esta situación. Pero, a la par que el adultocentrismo nos relega por el hecho de tener menos edad, existen otras estructuras sociales que relegan por otros motivos; más aún estos vectores de desigualdad son acumulativos. El Consejo siempre ha tenido claras dos máximas: 1. Que la desigualdad por razón de edad no es la más grave de cuantas existen y, por tanto 2. Que no podemos hacer una lectura de la realidad desde la óptica exclusiva del criterio etario. En este 7º número de la revista Ahotik At queremos mirar la realidad con unas gafas moradas para analizar, de una parte, la conjunción de este adultocentrismo y del patriarcado sobre la vida de las mujeres y, de otra, abordar una serie de cuestiones que nos preocupan o interesan especialmente desde la perspectiva de género.

*"Queremos mirar la realidad con unas gafas moradas para analizar, de una parte, la conjunción de este adultocentrismo y del patriarcado sobre la vida de las mujeres y, de otra, abordar una serie de cuestiones que nos preocupan o interesan especialmente desde la perspectiva de género"*

hemos realizado un trabajo de análisis sobre ese continuo (formación-empleo-vivienda) y también de formulación de propuestas políticas que permitirían superar las condiciones generadas por ese complejo adultocentrismo-patriarcado desde una solución universalista.

El EGK tiene sentido sólo en tanto en cuanto es una plataforma de asociaciones juveniles. Eso nos obliga también a preguntarnos si desde ese asociacionismo la lectura de género está presente a la hora de diseñar proyectos y acciones políticas y, por otra parte, si la estructura de poder patriarcal se reproduce en su interior. La respuesta a ambas cuestiones, por desgracia, es convergente. Aún nos queda mucho trabajo por hacer para integrar en nuestro quehacer cotidiano tanto la capacidad como las herramientas de analizar y de afrontar la realidad desde un enfoque integrado de género. Respecto a la incidencia de la discriminación hacia las mujeres en las estructuras de poder en las asociaciones, lo que vemos también es nítido. Si bien las mujeres son quienes de manera mayoritaria participan en el asociacionismo juvenil vasco, ellas están claramente subrepresentadas en los órganos de dirección de las entidades. Esta cuestión, pues, nos debe de ocupar ya que el problema no está sólo en la participación de las mujeres en las instituciones o en la dimensión económica, sino que también está en nuestras casas, empezando por el propio EGK.

*"Si bien las mujeres son quienes de manera mayoritaria participan en el asociacionismo juvenil vasco, ellas están claramente subrepresentadas en los órganos de dirección de las entidades"*

Si cuando hablamos en términos generales de emancipación, el triángulo formación-empleo-vivienda aparece como nodo de todos los problemas, sus vértices se tornan más afilados si realizamos el análisis desde la perspectiva de género. Las mujeres jóvenes acceden en mayor medida que los hombres de su misma edad a niveles de educación superior y, sin embargo, sus posteriores ocupaciones tienen que ver con lo estudiado menos que en el caso de ellos. En el caso del empleo podemos sintetizar que las mujeres jóvenes tienen menores tasas de ocupación (están menos presentes en el mercado laboral), pero mayores tasas de paro y de precariedad laboral (sobre todo si tenemos en cuenta la economía sumergida), por no olvidar la gran brecha salarial existente entre géneros y que se mantiene en el caso de las personas jóvenes ¿Qué decir sobre vivienda? Si para cualquier persona joven emanciparse cuándo y como quiere de una manera digna es simplemente imposible, el léxico no contiene palabra que defina esa realidad para una mujer joven. Si combinamos la realidad laboral, de un lado, con el coste y las condiciones de acceso a la vivienda, de otro, la ecuación resultante es irresoluble. A lo largo de los años



/// Igor Mera Uriarte

Presidente de EGK  
EGKko presidente

/// MARTXOA\_MARZO2010

# "Komunikabideak partecci buruz aritzan dira, parte horien generoa kontutan hartu gabe, eta genero ikuspegia funtsazkoa da errealitatea ulertzeko"

"Pozueloko liskarrak (hots, litroak egiten zebiltzan gazteek poliziarekin izan zituzten istiluak) aztertzen, gazteen jokabideari buruz hausnartzen aritu ziren komunikabideak. Ez ziren ohartu liskarrak sortu zituztenak mutikoak zirela. Hau da: aztertu behar zena ez zela gazteen jarrera, baizik eta gizon gazteena". Horrela azaltzen du June Fernándezek hedabide askoren "gabezia" bat: alegia, "genero ikuspuntua ez erabiltzearen".

■ Telebista piztu eta... gizonentzako desodorante baten iragarkiak erasan nau: *fishfish* egin eta emakume guztiek bere oinetara ditu. Ez ote dago horrelako desusaingarriek emakumeentzat? Emakumeentzako desodoranteak seme-alabek gure besapea musukatu ahal dezaten omen dira...

Komunikabideetan eta, batez ere, publizitatean, rol oso tinkoak mantentzen dira eta begirada guztiz androzentrisko da. Emakumeentzat soilik feminitatearekin lotzen diren produktuak zuzentzen dira: kosmetika, konpresak eta garbitzeko produktuak. Emakume zein gizonek kontsumitzen dituzten produktuen iragarkiak, berriz, gizonei zuzenduta daude gehien bat (edariak, kotxeak...); gizona baita gizarte patriarkal honetan zentroa, izaki unibertsala. Iragarkietan islatzen den arrakasta kontzeptua ere maskulinotasunaren balioei argi lotuta dago.

■ "Sin tetas no hay paraíso". "Nireak ikusezinak dira. Hau infernua...". Noraino baldintzatu dezakete komunikabideen feminitate-patroiek nik nire *irudiaz* dudan *irudia?* Eta maskulinitate patroiek?

Telesailek irudi garaikide bat aurkezten dute, baina *makillaje* hutsa besterik ez da. Sakonean ageri diren rolak betikoak dira. *Lost-en* esaterako, emakumeek neska polita, ama, edo emaztearen paperak dituzte; zaintzaileak dira. Gizonak, berriz, liderrak, heroikak

dira, edo bestela tipo dibertigarriak. Emakumeengan, nire uste, eragin handiena daukana gorputzari eta sexualitateari lotutako mezuak dira. Gizonengan, beti ausartak eta indartsuak izan behar direlaren mezuak. Marrazki bizidunetan irudi horiek ere mantentzen dira, haurrei irakatsiz nola izan behar duten emakume edo gizon. Hala ere, gero eta gehiago dira beste motatako ereduak plazaratzen dituzten telesailak. *Anatomia de Grey-en* neskak independenteak dira, euren lana maite dute, batzuk konpromezuari beldur diote, argalak ez izan arren arrakasta sexuala daukate... Asko gustatzen zait ere *Friends-ek* nola iseka egiten dion maskulinotasun ereduak dakartzan muga edo *limitazioei*: esaterako, homofobiaren itzala dela eta, gizonezko lagunen artean ematen diren egoera xelebreak.

■ "Zergatik ez ote dute bere bikotea salatzan?". Tratu txarren biktimak, tratu txarren errudun...

Guztiz ados. Egunkarietan gehiegiz erabiltzen dira holako esaldiak: "ez zuen bere bikotea salatu" edo "urruntze agindua apurtu zuen". Garranzitsua al da hori gertatu zena ulertzeko? Ez, baina emakumearen jarrera kolokan jartzen da, susmopean. Berak bere burua defendatu ez bazuen zergatik errespetatzen behar dugu? Ardura beti emakumeengan ipintzen da. Bere jokaera kuestionatu ordez, kazetaritzak dominazio jokaerak azaleratu beharko

litzuzke eta, batez ere, informazio erabilgarria eman, salatzeko erabakia hartzen ez dutenek gutxienez beste babes aukerak bila ditzaten.

■ Behin batean... egin ziren garbigarri-iragarkiak zeinetan gizonezkoek egiten baitzituzten etxeko-lanak. Antza, jendeak ez omen zituen gero produktu horiek erosten... Arraultza ala oiloa?

Pena ematen dit hori entzuteak. Asko poztu ninduen iragarki honek: gizon bat normaltasunez etxeko lanak egiten. Pentsatu nuen berdintasunaren aldeko gizonengan, bakarrik bizi direnengan eta emakume askorengan iragarki horrek eragin ona izango zuela. Aitorru behar dut nik neuk marka hori erostea pentsatu nuela iragarkia saritzeko. Hala ere, ez dut uste normalean erabiltzen diren iragarki tuntunak ("*Ploff, ¡la mancha!*") erakargarriak direnik gaur egungo emakumeentzat. Horietan badirudi etxeko lanak direla emakumeen bizi proiektua, euren bizitzari zentzua ematen dion gauza bakarra. Produktuekin identifika gaitezen irudi anitzagoak eskaini beharko ditu publizitateak.

■ Kritiken aurrean, kazetari askok esan ohi dute komunikabideak errealitatearen eta gizartearen ispilu baino ez direla. Hala da, neurri batean? Gure "gizarte patriarkala isolatu" besterik ez dute egiten? Erdi eta erdi. Egia da emakume gutxi

baldin badaude politika lanetan hori egunkarian nabarituko dela. Baino komunikabideek iritzi publikoan eragin handia daukate. Eurek erabakitzentz dute zer duen garrantzia eta zer ez, zein iturrietara jo, zer azpimarratu erreporterietan, hizkuntza era ez-sexistan erabili ala horretaz ez kezkatu, indarkeria sexista sakonean aztertu edo gertakari puntual eta morbosoa bat balitz bezala... Ikerketek diote emakumeak iturri bezala gutxiago erabiltzen direla, baita kalean erreakzioak bilatzen direnean ere. Hau da, kalean emakumeak erdia edo gehiago dira eta hala ere kazetariekin (segur aski era inkontzientean) gizonen iritzia eskatzen dute gehien bat. Genero ikuspuntua barneratu beharra dago: hau da, edozein gairen aurrean (ez bakarrik emakumeen gaiak bezala antzematen direnak) emakume eta gizonen egoera desberdina ote den aztertu eta islatu. Horrela hainbat ondorio interesgarri atera ditzakegu: lan eta kotxe istripuak maskulinotasun hegemonikoaren ereduari lotuta daudela (arriskuaren kulturan oinarritua), Atzerritaritasun Legeak emakume etorkinengen ondorio larriagoak dituela, osasun sistemaren aurrean batzuk eta besteek jarrera eta behar desberdinak dauzkatela... Genero ikuspuntua kazetari hobeak bihurtzen gaitu, errealitatearen funtsezko analisi tresna baita.

■ Eta komunikabideek, "ispilu horiek", benetan emakume gazteak diren moduan eta bere dibertsitatean isolatz al dituzte?

Baina agertzen al dira emakume gazteek komunikabideetan? Hurrengo egoera hauek bakarrik etortzen zaizkit

estereotipatua dago: edo zikinak, gatazkatsuak eta etorkin ilegalak dira, edo *vudú*-aren bidez engainatuak eta menperatuak izan diren neskatila tuntun, pasibo eta primitiboak.

■ Eta zein neurri har ditzakete komunikabideek genero-berdintasuna lortzeko?

Lehenengo eta behin, enpresa barruan sexismarekin apurtzea, ordutegi egokiak izatea, lana eta bizitza pertsonalaren arteko kontziliazioa erraztea, kristalezko sabaia apurtzeko neurriak proposatzea... Duela gutxi irratia publiko bateko goizeko saioa ipini nuen eta hiru *tertulianoak* gizonezkoak ziren. Komunikabideek berdintasunaren aldeko apustuak egin beharko lituzkete: emakumeak ikusgai izateko borondatea, hizkuntza era ez sexistan erabiltzearen alde egitea, genero indarkeria era egokian lantzeko konpromisoa... Hori gehiegiz eskatzea ote? Zuzendari gehienak ez daude prest, baina horrek ez ditu kazetariak desanimatu behar. Kazetari bakoitzak askatasun neurri bat du gaiak jorratzean genero ikuspuntua aintzat izateko, desberdintasunak azaleratzeko, eredu positiboak aurkezteko, iturri anitzak erabiltzeko, eta abar luze-luze bat. Ez dago aitzakiarik bakoitzak bere aldetik jartzeko. Eta, nola ez, bakardadean lan hori zaila ematen badu, anima daitezela Kazetarion Berdinsarea bezalako gunetan elkartzen. Guziarekin ere, guztion esku dago berdintasunaren alde egitea, bai kazetari bezala zein komunikabideen kontsumitzaile bezala. ■

June Fernández. Berdinsareako\* kazetaria  
\*Genero ikuspegia duten Kazetarien Euskal Sarea



## Hirigintza eta generoa //

"Hiriaren diseinuak eta antolaketak kaleetan dagoen indarkeriarekin zuzeneko harremana du. Emakumeak ez dira denbora gehiagoz euren segurtasun pertsonalaren arduradun bakarrak izan behar. Helburu hori lortzeko, biri bateko segurtasunak elkarren arteko errespetuaren adierazpena izatera iritsi beharko luke".

Gure hirigintzaren historian, gizonak izan dira arkitektu, urbanista, politikari, sustatzaile, eraikizale eta promotorre. Eurek ia esklusiboki diseinatu, pentsatu, irudikatu eta eraiki dituzte hiriak. Emakumeak, salbuespenak salbuespen, ez dira XX. mendearren amaiera arte sartu esparru horietan. Hau guztia gizarte patriarkar baten eredupean gertatu izan da, non ezagutzaren subjektua ez da izaki neutro eta unibertsala, gizonezko bat baizik; alegia, gizon gazte, zuria, langilea, katolikoa eta beste batek zaindua, gehienetan. Hiritargoaren ereduak subjektu honekin bat egiten ez duten pertsonak alde batera utzi izan ditu; ez bakarrik emakumeak: elbarrituak, txiroak, zaharrak edo umeak ere... Pasa den mendeko hiriak, beraz, ez dira eraiki edo pentsatu pertsona guzti hauen beharrentzat.



Beharrezko une honetan **hirigintza-diziplinaren berrikuspen** bat egitea. Gure herri eta hirietako egunerokotasunaren ikuspegia zabalago eta konplexuagoa osatu behar dugu. Hiri genero-ikuspegitik aztertzerako orduan, lau lan-ildo nagusi bereiz daitezke:

### [a] EGUNEROKO BIZIMODURAKO HORNIDURAK:

Gaurdaino oso gutxi partekatu diren ardura horiek lan-orduekin bateragarri egiteko modu bakarra dago, laguntzarako azpiegiturak eskura izatea: oinarrizko hornidurak, aisia-guneak eta etxetik oso hurbil dagoen lanpostu bat. Hurbiltasuna edota irisgarritasuna ezinbesteko baldintza da, familiako edo etxeako kargak dituzten pertsonak, gehienetan emakumeek, bizi-kalitate egokia lor dezaten.

### [b] GARRAOIA:

Ustez eredu unibertsalaren oinarritutako mugikortasunaz piegituren diseinuak lan produktiborako bidaiai balioztatzentzu dira beste edozein bidaia-motaren gainetik.

Horren ondorioz, eguneroko bizimoduak eskatzen duen mugikortasun konplexutik erabat aldentzen dira garraio-beharrianak. Zaintza-lanak partekatuko dituen gizarte berdinaleago batek bere garraio-sistema publikoa egokitzen beharko luke. Garraio-sistema publiko horren oinarrizko ezaugarriak hauexek izan beharko lirateke: maiztasuna, ordutegien fidagarritasuna, ekonomia, malgutasuna (gelditzeko modu eta tokia aukeratu ahal izatea) eta

segurtasuna. Garraio sarea iraunkor bat osatzeko hiri sakabanatua edo *zoning*-aren hirigintza ereduarekin amaitzea beharrezko izango da.

### [c] SEGURTASUN EZA:

Hiri seguruak sortu nahian, hirigintzak segurtasun gabezia eta ahultasun-sentimendua areagotu eginditzake, historikoki emakumea etxe barruan bizitzera derrigortu duten baldintza soziokulturalak errepikatzen baditugu.

Libre eta seguru mugitzeko eskubideak harreman zuzena du espazio publikoan daukagun edo sentitzen dugun segurtasunarekin. Arrisku-egoerak, mito edo rol sozialaren oinarritutako beldurretan edo segurtasun-sentsazioetan oinarritzen dira sarri. Beldurra delako, askotan, emakumeak kontrolatuak izateko tresna.

Hiri eredu horretako biztanle guztiak pertsona bezala gauzatzeko aukerak izan eta zoriontasuna bila dezaten. Biziutako gaituen hiria; zaintzen, zaindugaitzen, jolasten, elkarbizitzan, amesten eta partekatzen.

Emakumea Hirian Europako Itunak ere lehentasuneko gaitzat hartzen du, eta horrela dio testualki: "Hiriaren diseinuak eta antolaketak kaleetan dagoen indarkeriarekin zuzeneko harremana du. Emakumeek ez dute izan behar denbora gehiagoz euren segurtasun pertsonalaren arduradun bakarrak. Helburu hori lortzeko, oinarrizko da hiri bateko segurtasunak elkarren arteko erespetuaren adierazpena izatera iritsi beharko lukeela". ■

Oihane Ruiz Menendez. Arkitektoa  
HIRIA KOLEKTIBOA - www.hiriakolektiboa.org  
Argazkiak: Koldo Telleria Andueza

## Autodefentsaz BI HITZ //

Beldur soziala eraiki da emakumeon gainean eta beldur hau gizonen onurarako izan da; honela, kontrolpean mantentzen gaituzte"

Erakunde feministak eta abertzaleak den Bilgune feministaren jardueraren zati garrantzitsu bat emakumeenganako indarkeriarekin aurka aritzean datza. Sortu zenetik (2002), indarkeriaren aurkako ekimen ezberdinak eta mobilizazio ugari eraman izan ditu aurrera Euskal Herriko hainbat hiri, herri eta txokotan. Borroka horretan autodefentsa feministaren aldeko apustua egin du azken urteetan, indarkeri sexistari aurre egiteko norbere buruaren autonomian sinestu eta emakumeen arteko sareak bultzatzu nahian.



Genero indarkeria, zelan ulertzetan duzue? Laburki azalduta, zer da genero indarkeria eta zergatik ematen da?

Lehenik eta behin, argitu behar da genero indarkeria baino, indarkeria sexista edo emakumeon aurkako indarkeria terminoa erabiltzen dugula, erasoak norabide bakarrekoak baitira (gizonak dira zapaltaileak eta emakumeok zapalduak).

Indarkeria sexista bizi garen sistema patriarkalean kokatzen dugu, honen adierazle bortitzena da. Beraz, egiturazkoa da eta sexuen arteko boteredun-mendeko

erlazioan oinarritzen da, harreman hierarkikoan, emakumea gizonarekiko menpekotasun maila batean kokatzen delarik. Modu honetan, jendartearren eremu guztiak sufritzen dugun diskriminazioaren eta bereizkeriaren ondorio latzen da, jendarte patriarkalaren oinarrian dagoen botere erlazioen adierazle latzena.

Teorian jendartea gero eta kontzentziatuagoa dagoela entzuten da, instituzioen partetik errekurso gehiago eskaintzen omen dira... hala ere, emakumeenganako indarkeria kasuak ez dira murritzentzat, eta gazteengana jarrera berdinak ematen direla dirudi. Zerk ez du funtzionatzen?

Sistema hau mantentzen duten instituzio eta estruktura ezberdinek emakumeon kontrako indarkeriaren dimensio globala onartzen dute, iaguztiak. Indarkeria estrukturalaren definizioan erakunde eta instituzio ezberdinak izaera orokorra eman badiote ere, arazoari aurre egiteko neurri partzialen diseinua egiten da. Ez du indarkeriaren erroetara jotzen, azkenean egun dagoen sistemaren kontra joatea suposatuko lukeelako eta botereak patriarkatua mantendu behar duelako bere helburu guztiak lortzeko. Indarkeriaren izaera estrukturala benetan onartuko balute jendartearren eraldaketa bultzatzen behartuak egongo lirateke. Eta hor dago gakoa.

Indarkeria sexista bizi garen sistema patriarkalean kokatzen dugu, honen adierazle bortitzena da. Beraz, egiturazkoa da eta sexuen arteko boteredun-mendeko

erotik moztuko, jendartearren eta harreman sozialen eraldaketa ez bagara oinarritzen.

Erasoei dagokionez, emakume gazteei familiatik eta beste instituzioetik helarazten zaien mezua kontrolarena eta beldurrarenaren izaten da maiz: etxera goizago bueltatu beharra, bakarrak ibiltzea saiheste, atentzioa deitzen ez duen jarrera eta irudia izatea... baina askotan erasoak beste nonbaitetik dator. Errealal al da arrisku hau? Positiboa al da mezua?

Beldurraren mezu honen helburua ez da inondik inora gu babestea, baizik eta izu sentimendua areagotzea eta gu geldirik mantentzea. Ez gaituzte gure gorputzen burujabe egin nahi, ezta gure bizitzen jabe ere.

"Beldur soziala eraiki da emakumeon gainean eta beldur hau gizonen onurarako izan da. Honela, kontrolpean mantentzen gaituzte"

Txikitatik irakatsi digute beldurra sentitzen, gauzak "bakarrak" ez ditugula egin behar errepikatu baitigute. Baina beldur hau hein handi batean ezarria da. Askotan ezezagun batek baino lehenago, etxeko nahiz familiako ezagun batek erasotzea posibleagoa baita. Baina beldur soziala eraiki da emakumeon gainean eta beldur hau gizonen onurarako izan da. Honela, kontrolpean mantentzen gaituzte, pasiboak, iniziatiabarik gabeak eta espazio publikoaren erabilera partziala egiten.

## Autodefentsaz BI HITZ //

Gehienetan autodefentsa, defentsa pertsonalerako teknika bezala ulertzen da. Bainaz zero da benetan autodefentsaren kontzeptuaren atzean dagoena? zelan ulertzen duzue autodefentsa? Zer da?

Bai, askotan autodefentsa feministak diogunean, defentsa pertsonalerako teknika multzoa bezala ulertu izan da. Bainaz autodefentsa feministaren ulermenak askoz haratago doa: indarkeriaren erroetara jo eta berarekin amaitzeko beharrezko den jokabide, jarrera eta tresna multzoa litzateke. Autodefentsaren bidez aurrera egin dezakegu, gure autoestima indartu egiten da eta jendartean ezarrita dauden generoaren araberako rolen inguruko kontzientzia hartzeara edota esnatzea suposatzen du.

Emakume askeak eta autonomoak izan nahi dugu, gure buruen jabe; gure buruengan dugun ziurtasuna handituz eta gure gaitasunetan sinestuz, norberaren etorkizunaren, gorputzaren edota bizitza beraren jabe garela sentitu nahi dugu. Zentzu honetan, gure burua maitatzeak, errespetatzeak eta jendeari behar denean limiteak jartzen jakiteak eramango gaitu autonomiaz defendatzera. Jarrera matxistak identifikatu eta hauei uko egiteko gai gara guztiok eta garapen honetan aritzea autodefentsa egitea da.

*"Gure burua maitatzeak, errespetatzeak eta jendeari behar denean limiteak jartzen jakiteak eramango gaitu autonomiaz defendatzera"*

Hori guziaz gain, argi dago autodefentsa feministak ez duela zentzurik emakumeen arteko babesik gabe. Jendarte honetan

emakume gisa dugun kontzientzi indibidual eta kolektibotik abiatuta, indibidualismoa gainditu eta harremantzeko modu gisa, emakumeen arteko elkartasuna eraiki behar dugu. Erresistentzi eraginkorra ziurtatuko diguten formulak behar ditugu, norberaren teknikak eta proposamenak konpartituz.

**Indarkeriaren aurrean, jendartea osatzen duten eremu eta instituzioen ardura eta lana prebentzioa, babesia eta erantzuna dela esan dezakegu. Bainaz zein da emakumeci, eta konkretuki gazteei zuzenduko zenioketen mezua?**

Gure ustez, arazo sozial honi aurre egiteko beharrezko da emakumeek antolatzea, gure artean babestea, taldean eztabaideatzea eta espazio komunak eraikitzea. Bakoitzak bere esperientziatik eta jarduteko eratik, denon artean aurre egin diezaigun egunero eragiten gaituen indarkeriari, bat egin dezagun pairatzen dugun zapalkuntzarekin amaitzeko.

*"Arazo sozial honi aurre egiteko beharrezko da emakumeek antolatzea, gure artean babestea, taldean eztabaideatzea eta espazio komunak eraikitzea"*

Egun dagoen berdintasun faltsua desitxuratu eta indarkeri sexistari aurre egiten jarraitza da helburua. Egunerokotasunean jasaten ditugun eraso sotiletatik hasi eta bortizkeri kasu larrienetara. Azken finean, gure eskubideen jabe egin behar gara egunerokotasunean indarkeriarik eta zapalkuntzarik gabe bizitzeko. ■

/// AHOTIKat

### DATOS SOBRE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES EN LA CAPV

Fuente: dirección de atención a las víctimas de violencia de género del gobierno vasco.

- Los casos de violencia contra las mujeres incrementaron un 3.01% En 2009 respecto del 2008.

- 4.859 Casos de denuncias por supuestos maltratos, 1.147 Mas que en 2008.

- En el 71 % de los casos (3.476 Casos) la violencia fue ejercida por la pareja o ex pareja de la mujer. En el 21 % de los casos (1.072 Casos) la violencia era de carácter intrafamiliar, con un aumento del 8.5% Respecto al año anterior.

- En el 2009 se registraron 311 casos de delitos contra la libertad sexual.

#### Mujeres asesinadas:

| AÑO  | MUNICIPIO DONDE OCURRIERON LOS HECHOS | EDAD DE LA VICTIMA |
|------|---------------------------------------|--------------------|
| 2002 | BASAURI                               | 33                 |
| 2004 | BILBAO                                | 33                 |
| 2004 | BILBAO                                | 27                 |
| 2004 | BARAKALDO                             | 34                 |
| 2004 | SANTURTZI                             | 16                 |
| 2004 | BASAURI                               | 54                 |
| 2005 | DURANGO                               | 32                 |
| 2005 | BILBAO                                | 68                 |
| 2005 | BARAKALDO                             | 38                 |
| 2005 | BAKIO                                 | 26                 |
| 2006 | BARAKALDO                             | 39                 |
| 2006 | BASAURI                               | 23                 |
| 2006 | GETXO                                 | 87                 |
| 2006 | GASTEIZ                               | 76                 |
| 2007 | BILBAO                                | 74                 |
| 2007 | GASTEIZ                               | 35                 |
| 2007 | ETXEBAIRRI                            | 80                 |
| 2008 | BAÑOS DE EBROMAÑUETA                  | 72                 |
| 2008 | SANTURTZI                             | 26                 |
| 2008 | ERRENTERIA                            | 35                 |
| 2009 | GERNIKA                               | 44                 |
| 2009 | IRUN                                  | 37                 |
| 2010 | TOLOSA                                | 45                 |
| 2010 | BARAKALDO                             | 65                 |

### DATOS SOBRE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES A NIVEL ESTATAL

Fuente: injuve, revista de estudios de juventud nº 86, septiembre 2009. Juventud y violencia de género.


Estadísticas extraídas de las llamadas realizadas al 016 (teléfono de atención sobre violencia de género), entre el 3 de septiembre de 2007 y el 31 de diciembre de 2008. Informe de la comisión para la investigación de malos tratos a mujeres, Ministerio de Igualdad, Gobierno Central.

- De 2003 a 2008, 121 mujeres menores de 30 años han perdido la vida a manos de sus parejas o ex parejas.


- De las 113.500 Mujeres que contaban con orden de protección en 2008, el 39,2% tenía menos de 30 años.

- Un 17,7% de los hombres menores de 30 años creen que el hombre agresivo es más atractivo, frente a un 4,5 de las mujeres menores de 30 que coinciden en ese planteamiento.



Edad de las víctimas




Estado civil de las víctimas



Víctimas según edad y nacionalidad



En tu opinión, la violencia de género es ...





## Antes de aprender a golpear, tenemos que superar nuestra ceguera sexista"



Sus palabras quieren ser puños. Hablar de autodefensa en Euskadi es hablar, sin falta, de Maitena Monroy Romero (Bilbao, 1972). Fisioterapeuta de formación, es miembro de la Asamblea de Mujeres de Bizkaia desde 1986, participó en el grupo de mujeres jóvenes Matarraskak durante diez años y organizó, en 1989, el primer encuentro estatal de profesoras de autodefensa feminista. Con más de 300 cursos impartidos a sus espaldas, explica que lo primero es conocer, reconocer y querer combatir al enemigo: el sexism.

*Autodefensa, violencia sexista y discurso feminista. ¿Pueden entenderse por separado?*

No. Son inseparables. La autodefensa feminista surgió del movimiento feminista. En concreto, aquí en Euskadi, nació hace 22 años en Bizkaia a través de la comisión anti-agresiones de la Asamblea de Mujeres. La autodefensa es un instrumento más, una estrategia más que podemos utilizar en el combate contra la violencia sexista.

*No siempre la violencia es tan manifiesta y evidente como un moratón. ¿Cómo pueden detectar las mujeres otras formas de violencia?*

Para mí existen tres tipos de violencia, todas ellas relacionadas. La primera sería la violencia simbólica, es decir, los patrones de conducta que se nos asignan: las mujeres son débiles, los hombres tienen un deseo incontrolable y son violentos por naturaleza... También es violencia sexista cómo se construye la idea de que las mujeres provocan: tiene que

ver con los papeles sexuales que se nos asignan a hombres y mujeres. Todavía hoy en día una mujer que hace con su cuerpo lo que quiere, con quien quiere y como quiere es catalogada como *puta* y, por si fuera poco, es asimilada a una *puta* a la que se le puede violar, mientras que, si un hombre hace eso mismo, hacer con su cuerpo lo que quiere... ya sabemos que no le catalogan así. Por tanto, ¿cómo detectar el sexism cuando no es tan explícito como un moratón? Una de las formas es, sencillamente, preguntarnos constantemente qué es lo que pensamos ante una misma acción, en función de si la ha llevado a cabo un hombre o una mujer. Si lo que pensamos es diferente... seguramente estaremos viendo nuestro propio sexism. Por tanto, si realmente queremos erradicar la violencia contra las mujeres, lo primero que tenemos que detectar es esta violencia simbólica.

*¿Cuál es el segundo tipo de violencia sexista?*

La estructural. O lo que es lo mismo: dado que se supone que tenemos una serie de atributos naturales por nuestro sexo de adscripción, se nos asignan una serie de roles sociales. Las mujeres somos cuidadoras, cariñosas, responsables... mientras que los hombres están hechos para la acción, son más audaces y tienen mayor capacidad de iniciativa...

*Falta la tercera...*

Sí. En tercer lugar tenemos la violencia directa: física, psicológica, sexual, patrimonial... y un largo etcétera. Esta violencia, la violencia directa, no podríamos enten-

derla sin la violencia estructural y la violencia simbólica. Por eso es muy importante que detectemos esos dos tipos, las actitudes sexistas y las actitudes de control que, sin ser violencia directa, son violencia. Porque, no nos engañemos: el sistema machista no quiere perder su poder ni cambiar la situación. Actualmente, está dándole una nueva vuelta de tuerca a cómo generar la sumisión de las mujeres. Y yo creo que lo han hecho muy bien a través de la cultura y a través del ideal de amor romántico.

*El principio azul...*

Eso es, el ideal de amor romántico de la película Crepúsculo (por amor, tenemos que morir...) Ama-ral ("Sin ti no soy nada", "Moriría por ti"). El ideal que dice que "hay que darlo todo por amor", que "por amor todo vale", que "el amor es sacrificio", que "en el fondo él me quiere...", que "por amor se cambia" (y por amor, no se cambia...). Estamos buscando un ideal de amor, un ideal de pareja. Y, cuando idealizamos, tendemos a no ver la realidad, con el peligro que eso conlleva.

Yo suelo decir en los cursos de autodefensa que *El amor daña seriamente la salud*. Y, además, genera precariedad en las mujeres. Las mujeres, por supuesto amor al compañero, a los hijos, al marido... se acogen a flexibilidad horaria, a jornadas reducidas... con lo que eso supone de cara al futuro, a la proyección



profesional, a la jubilación... O sea, que el amor romántico daña la salud económica, emocional y física de las mujeres.

*A estas alturas de la entrevista, habrá quien se pregunte: y la autodefensa, ¿qué papel juega en todo esto?*

Pues juega un papel muy importante, porque lo que hace es desenmascarar todo esto de lo que estamos hablando. Hoy en día, el 70% del curso es parte teórica y otro 30% es parte física. Antes de aprender a golpear, tenemos que aprender a analizar qué es la violencia contra las mujeres, por qué se sigue ejercitando y cuestionarnos también el ideal de amor romántico, porque de poco sirve dotarnos de recursos si tenemos un ideal que nos lleva a una situación de sumisión o que facilita las relaciones de poder o, incluso, de violencia. En este sentido, falla la prevención con las personas jóvenes: fallan las políticas de juventud. Tenemos que aprender a deshacernos de nuestra ceguera sexista.

*¿Cómo?*

Hablando sobre cómo se estructura la violencia contra las mujeres en esos tres apartados (violencia

simbólica, estructural y directa). Viendo cómo, al final, la violencia contra las mujeres es algo que sufriremos el conjunto de las mujeres, y no sólo las que sufren la violencia más directa.

Analizando hasta qué punto la violencia está en cada una de nuestras vidas, y en qué medida nos coarta: ¿cuántas cosas he dejado de hacer por miedo a la violencia sexista?, ¿cuántas veces me he cambiado de ropa por miedo a lo que me podía pasar si volvía de madrugada?, ¿cuántas veces he dejado de ir al monte o a la playa por miedo a ir sola?, ¿cuántas veces he acelerado el paso...? Si reflexionamos un poco, nos damos cuenta de que la violencia contra las mujeres está mucho más presente en nuestras vidas cotidianas de lo que pensamos.

*¿Cuántas veces me he cambiado de ropa por miedo a que me pase algo? ¿Cuántas veces he acelerado el paso? La violencia está más presente en nuestras vidas de lo que pensamos*

es ese algo? Que me expliquen qué me puede pasar, porque si no, ese algo...

*Cabe todo...*

Efectivamente, cabe todo: y eso es el terror absoluto. Esta falta de información, de explicación de qué es lo que nos puede pasar, es lo que nos vuelve verdaderamente vulnerables a las mujeres. Nos tenemos que dotar de recursos para saber reconocer las situaciones y las actitudes sexistas y actuar antes de que la situación se convierta en una situación de violencia física o, si los agresores nos pillan de improviso, tener los recursos físicos para saber afrontar esa violencia.

*¿Y cómo se puede evitar que la situación degenera en violencia física?*

Empezando por creernos que tenemos derecho a defendernos. Eso es fundamental. Por eso en los cursos de autodefensa trabajamos mucho el tema de la violencia de baja intensidad...

*¿En qué consiste?*

¿Cuántas veces nos hemos tenido que ir de un transporte público, o de un bar, de una discoteca, de un concierto... porque nos estaban empalando, nos estaban tocando el culo...? Eso es la violencia de baja intensidad: ocupaciones o invasiones de nuestro espacio vital o, incluso, abusos sexuales. Lo primero que tenemos que aprender es a responder a esas situaciones de baja intensidad, en las que la violencia física no es tan salvaje, en las que las agresiones son más sutiles y difíciles de denunciar. Si somos capaces de quitarnos esa ceguera sexista y empoderarnos ahí, es mucho más difícil que suframos otro tipo de violencias más salvajes. ■

/// AHOTIK at

## PREKARIETATEAREN FEMINIZAZIOA

Emakume + gaztea = pobrea //



# EMAKUME + GAZTEA = POBREA

XXI.MENDEAN ORAINDAK ORAIN, ZAINTZA ETA LAN “ERREPRODUKTIBOEN” FEMINIZAZIOA BERE HORRETAN MANTENTZEAREKIN BATERA, LAN MERKATUAK GIZONEZKOEN LEHENTASUNA ETA EMAKUMEEN SUBSIDIARITATEA EZARTzen JARRAITZEN DU




PERTSONA GAZTEEN EMANTZIAZIO PROZESUAN AGERTZEN DIREN TRABAK IRUDIKATZERAKOAN, ASKOTAN GAZTEEK PAIRATZEN DUGUN PREKARIETATEAZ ARITU GARA, BAINA EMAKUME GAZTEEK PREKARIETATE BIKOITZA PAIRATZEN DUGULA EZIN DUGU AHAZTU. GENERO EZBERDINTASUNAK EMAKUMEEN LAN BALDINTZETAN ETA ONDORIOZ-AUTONOMIA MATERIALEAN DUEÑA ERAGINA NABAR MENA BADA, IDENTITATE HONI GAZTE IZAERA GEHTZERAKOAN, AURREZ-AURRE AGERTZEN ZAIGU PANORAMA GUTXIEZEK KEZKAGARRIA DELA EZIN DA UKATU.

Egungo testuingurura moldatu bada ere, bereizkeria honen sorburua gizon eta emakumeen arteko lan banaketan dagoela esan dezakegu. Errealitate hau abiapuntu, XXI. mendean oraindikorain, zaintza eta lan “erreproduktiboen” feminizazioa bere horretan mantentzearekin batera, lan merkatuak gizonezkoen lehentasuna eta emakumeen subsidiaritatea ezartzen du, egiturazko zapalkuntza lan merkatuan finkatzen duenaren garrantzia aitortuta, ondorengo datuak EAEko emakume gazteen baldintza materialei begiratu azkar bat ematen diote, lan baldintzatik hasi eta autonomia ekonomikoa hizpide hartzen duten azterketa ezberdin bitartez.


2009ko lehen hiru hilabetea, OBJOVI, primer trimestre del 2009




2009ko lehenengo hiru hilabetea, OBJOVI, primer trimestre del 2009




Pobreza azterketa 1988-2008, Eusko Jaurlaritza / Estudio de pobreza 1988–2008, Gobierno Vasco




Juventud Vasca 2008, Eusko Jaurlaritza



15-29 urte bitarteko emakumeen diru sarrerak 2008an / Ingresos de las mujeres entre 15 y 29 años en 2008



15 eta 29 arteko gazteriaren lan egun mota sexuaren arabera 2008an / Tipo de jornada laboral de la juventud entre 15 y 29 según sexo en el 2008



# Seis sindicatos,

# una pregunta\*

**UGT: "Las discriminaciones que sufren las mujeres se agravan si, además de pecar de mujer, pecan de juventud"**



"La respuesta es fácil y rotunda:  
**SÍ.**

En España, la participación de las mujeres en el mercado laboral ha mejorado sustancialmente en la última década, sobre todo entre los años 2000 y 2007, donde hemos pasado de una tasa de actividad del 41,2% al 54,7% respectivamente (datos del EUROSTAT). Sin embargo, nuestro país está situado en el puesto número 8 de los países de la UE con peor tasa de actividad femenina.

Pero no sólo se trata de la menor participación laboral, sino que la desigualdad salarial por razón de género se ha convertido en uno de

los supuestos de discriminación de las trabajadoras más graves y persistentes. Por desgracia, la lista no acaba aquí. Por hacer un somero resumen citaremos: la menor tasa de ocupación, el mayor desempleo, las dificultades para promocionar y acceder a puestos de decisión, la segregación ocupacional, la mayor precariedad en la contratación, con altísimos índices de empleo temporal y/o a tiempo parcial, así como las dificultades para conciliar la vida profesional y familiar.

Pero aparte de ello, no hay que olvidar que esta situación se agrava si la persona además de mujer "peca" de juventud.

A los jóvenes trabajadores se les va a someter constantemente a distintos tipos de discriminación laboral en el tránsito que va desde su iniciación laboral hasta su plena integración en el mercado de trabajo. Los efectos discriminatorios más significativos se suelen concentrar en las siguientes etapas:

En primer lugar, se discrimina a los jóvenes a la hora de optar a una oferta de trabajo cuando la formación que se exige para el puesto no se corresponde con las funciones del mismo y cuando no se cuenta con la experiencia profesional suficiente. En segundo lugar, se discrimina a los jóvenes en el acceso al mercado de trabajo y en su permanencia en el mismo. Todo esto hace que la inmensa mayoría de ellos se encuentre en un proceso constante de entrada y salida del mercado laboral o también denominado "efecto puerta giratoria". Y en último lugar, se discrimina a los jóvenes trabajadores en cuanto a que sus condiciones de trabajo en general no son iguales a las del resto de los trabajadores.

Además, hay que dejar claro un mensaje: las mujeres no están a salvo de la crisis. Aunque el primer sector afectado fue el de la construcción, (mayoritariamente masculino), la crisis ha afectado también a los sectores de servicios y comercio, mayoritariamente femenino. En consecuencia, el

aumento del desempleo de mujeres durante el pasado año (incremento ligeramente inferior al de los hombres) se ha acumulado al desempleo femenino existente, ya de por sí muy elevado.

Por todo, es necesario apostar por el diálogo social y una Ley Integral que analice la situación global de la mujer y establezca medidas eficaces para garantizar un mercado laboral más justo.

Jorge Regueiro

**ESK: "Querer formar una familia a corto plazo supone actualmente un punto negativo para las trabajadoras jóvenes"**



Consideramos que las mujeres jóvenes en muchos casos sí sufrimos una doble discriminación.

Por un lado, por ser mujeres, ya que sufrimos una discriminación en el salario, teniendo dificultades en muchos casos a la hora de ascender a puestos, porque los empleos feminizados están peor valorados y por tanto tienen peores salarios, porque en muchos casos tenemos que demostrar mayor capacidad para desempeñar un puesto de trabajo igual que los hombres...

Se "valora" más nuestra vida personal que la capacidad de trabajar. Si queremos formar una familia a corto plazo, supone un punto negativo, por muy capacitadas que estemos para desarrollar nuestro trabajo. Esto nos supone una gran inestabilidad, así como despidos encubiertos de mujeres que se quedan embarazadas.

Por otra parte, sufrimos discriminación por ser jóvenes, porque sufrimos mayor inestabilidad laboral,

porque en muchos casos se realizan contrataciones de prácticas, por medio de becas... en las que ni siquiera hay una cotización. Vemos cómo nuestros compañeros ascienden y a nosotras no se nos valora.

Las medidas que se deben tomar son garantizar la equiparación real entre mujeres y hombres, penalizar en el caso de que no se haga y adoptar medidas en las que se garanticen contrataciones a largo plazo, así como asegurar que la negociación colectiva sea una herramienta útil y eficaz para dignificar las condiciones de trabajo de las mujeres. Asimismo, es fundamental visualizar y denunciar la división sexual del trabajo e identificar y reconocer la precariedad laboral en las mujeres.

Miren Cerrato

Joana Etxano

\* ¿Sufren las mujeres jóvenes  
doble discriminación por  
mujeres y por jóvenes en el  
mercado laboral? En tal caso,  
¿qué medidas hacen falta para  
prevenirlo y resolverlo?

## Seis sindicatos, una pregunta //

**LAB:** *"Neska askori berdintasunean bizi direla pentsarazi diente, eta hori arazo bat da egoerari aurre egiteko"*



Gazteak sexu gabekoak balira bezala tratatzeko dagoen joera gaintitu behar dugu, neska eta mutilen artean dagoen desberdintasuna ezkutatzen duelako.

Gaur egun bizi garen jendarte kapitalista patriarkalean, lana sexuaren arabera banatzen da eta egoera honek emakumeak zapaltzen gaitu. Sexu-genero bereizkeria adin guztietai sufritzen da, baina argi dago gazteen kolektiboa egoera prekarioa jasaten badu, are gehiago jasaten dela emakume eta gazte izanik. Gainera, egungo gazte belaunaldiak berdintasun formalaren diskursopean heziak izan dira.

Baina errealitateak erakusten digu emakumeak eta gizonak ez garela aukera berdintasunean hezten. Emakumezkoen formakuntza maila gero eta altuagoa bada ere, ikasketa segregazioa errealitate gordina da. Lanbide Heziketaren datuei erreparatz geru, emakumeen presentzia eskasa izateaz gain, irtenbide gutxiengoa (langabezia gehien) eta balorazio eskasena duten alorretan kokatzen gara.

Lan munduari dagokionez, honako elementu hauek azpimarratu nahiko nituzke: **prekariatetik larriena, alegia, kontratacio eza, emakumeek jasaten dugu.** Horretaz gain, denbora mugatu baterako kontratazioetan emakumeak kasu guztietai, eta mota guztietai, gehiengoa gara.

Baldintza prekarioagoak jasateaz gain, zerbitzu sektoreetan diharduten emakumei zenbait exijentzia ezartzen zaizkie, besteari beste estereotipo sexistei lotutakoak eta lanarekin zerikusirik ez dutenak.

Edo, zer esanik ez, merkatu beltzean dauden hainbat eta hainbat emakume, gehien bat zaintza lanetan, inolako eskubiderik gabe.

Soldatari dagokionez, teorian ezinezko den diskriminazio zuzena

ematen da, hau da, lan berdinean desberdin kobratzen da emakumea edo gizona izateagatik.

**Arazo larri honi aurre egiteko, nahitaezko da Lanketa Ideologikoa, sistemak barnerazi dizkigun pentsamolde, jarrera eta jokaerak deseraitzeko.** Ekintza Sindikal eredu ofentsiba bat artikulatu, sistema kapitalista neoliberalaren zutabe garrantzitsuenetarikoa gaintitzeko: alegia, sexuaren araberako lan banaketa, emakumeak lan merkatutik at uztea baino, lan merkatuan bigarren mailan kokatza bilatzen duen banaketa. Egoera honi aurre egin behar diogu, arazo zehatzetik erantzuna emanet baina, era berean, egungo lan harreman eredu errotik aldatzeko behar den estrategi ofentsiboa aurrera eramanet, eta benetako neurri integralak aplikatuz. Beti ere, noski, emakumeen artean aliantzak sortuz.

Zaloa Ibeas De la Cruz

**CCOO:** *"Es necesario cambiar el modelo productivo y que las jóvenes accedan a sectores masculinizados"*



Las mujeres jóvenes no solamente sufren los graves problemas de la precariedad laboral que soportan las personas jóvenes, como la temporalidad, la encadenación de contratos, la alta siniestralidad, la brecha salarial... sino que, además, padecen discriminación por razón de sexo. Quieren incorporarse al mercado de trabajo y quedarse en el mismo para tener una auténtica promoción profesional. Sin embargo, la división sexual de roles y el reparto que aún existe del trabajo en el ámbito privado y de las responsabilidades familiares que la sociedad todavía impone a las mujeres hace que el mantenimiento de las mujeres en el mercado laboral se convierta en todo un reto, de manera que muchas veces se les obliga prácticamente a elegir qué parte de su vida quieren desarrollar: si la pública o la privada.

Por ello, es preciso seguir avanzando en el desarrollo de políticas formativas y de sensibilización que favorezcan los necesarios cambios en los valores, actitudes y roles sociales adjudicados a hombres y mujeres para prevenir y erradicar todas las formas de discriminación contra las mujeres. Además, es necesario que se produzca un cambio del actual modelo productivo, que ha llegado a su fin. Este modelo ha desarrollado un mercado de trabajo compuesto por sectores de gran valor productivo donde mayoritariamente se han concentrado los hombres, y otros sectores, ocupados mayoritariamente por mujeres, con mano de obra intensiva y bajo valor añadido, con mucha temporalidad y precariedad.

Para que sea efectivo, este cambio debe promover que las jóvenes accedan a los sectores masculinizados donde están infrarrepresentadas, incorporando a través de la negociación colectiva medidas de acción positiva que les permita acceder a estos sectores de mayor valor añadido. También debe mantener y aumentar la inversión pública en servicios públicos de calidad, para atender las necesidades de las personas dependientes y la universalización de la educación infantil de 0 a 3 años. Además, tiene que incentivar y potenciar la corresponsabilidad de los hombres en el cuidado de las personas y en las tareas domésticas.

En este proceso, vamos a seguir exigiendo el cumplimiento de la Ley de Igualdad, impulsando la elaboración de los planes de igualdad en las empresas y la incorporación de medidas de acción positiva que eliminan las discriminaciones que padecen las mujeres jóvenes en el mercado de trabajo y faciliten el acceso a un empleo de calidad.

Pero además, es fundamental que se produzca un cambio de mentalidad por parte de los empresarios para que en este proceso se comprometan a incorporar a las mujeres jóvenes al modelo productivo.

Feli Piedra

**ELA:** *"Lan banaketaren aurrelik, hezkuntza mailan aukera profesionalen banaketa argi bat ematen da"*



Jendartean abiapuntu eta posizio desberdinatetan kokatzen gaituzten ardatz diskriminatzialeak hierarkizatza zaila bada ere, oro har emakumeak eta zehazkiago emakume gazteak desabantaila egoera nabari batean kokatzen gara bizitzako ziklo guztietai, baita ekoizte-lan eta etxeko lanen banaketan ere.

Lan merkatua sektore maskulinizatu eta feminizatuetan bereizturi dago, azken hauek bigarren maila batean kokatzen direlarik. Guztia honek emakume langile gazteongan eragite zuzena dauka, lan banaketa honen aurrelik hezkuntza mailan ere aukera profesionalen banaketa argi bat ematen delako. Honen ondorioz, etorkizuneko emakume langileek egiturazko oztopoekin topo egiten dute aurretiaz. Era berean, emakume langile gazteen lan ibilbidea guztiz baldintzatzen duen faktorea amaizateko garaian daudela da. Hau guztiagatik, hainbat neurri hartu behar dira esparru ezberdinatik.

**Sindikalgintza mailan,** langile gazteen partehartze eta ordezkaritza sustatu behar da sindikatuetan, eta emakume langile gazteen aurkako diskriminazio egorak, prekariatetara bideratzen gaituzten lan baldintzak detektatu, eta horren aurrean antolatu, langile gazteak sindikatuz; horrez gain, negoziazio kolektiboa funtsezko tresna bilakatu behar da langile gazteen lan baldintza duinak borrokatzeko.

**Enpresa mailan,** emakume langile gazteen aldeko ekintza positiboak gauzatu behar dira eta benetako barne sustapena bultzatu, frogapek eta azpikontratak gutxitu edo desagertarazi, amatasuna babestu, neurri zehatzak hartu lan eta etxeko bizitzaren kontziliazioa lortzeko... eta neurri horiek guztiak hitzarmen kolektiboa barneratu.

**Hezkuntza eta politika publikoen**

mailan, aukera profesionalen bereizketarekin apurtzeko aurrekontuak bideratu behar dira, horrela, tradizionalki kontrako sexuari zuzenduak egon diren lan ibilbideak ahalbideratzeko.

Beste neurri batzuk ere beharrezkozat jotzen ditugu, hala nola bigarren mailako hezkuntzan kontzientzia eta prebentzio kanpainak martxan jartzea, zeingizarte erantzunkidetasuna bultzatzea lan-bizitza, familiaarena eta norberaren bateragari bihurtzeko. Honetaz gain, zerbitzu sozial publiko eta erabatekoak ezinbestekoak dira. Azkenik, funtsezko da ere etxebizitza duin eta eskurakorren aldeko politika publikoak bermatzea, langile gaztearentzat.

Jone Bengoetxea

**STEE-EILAS:** *"Hezkuntza, irakaslearen lana gero eta 'intelectualagoa' eta 'zaintzarekin' harreman txikiagoa eduki, gizonen presentzia orduan eta handiagoa da"*

**STEE EILAS**

Sektore publikoan, bai oposizioetan bai beste aukeratze-prozesuetan ere, esperientzia saritu egiten da, eta hau izangaiaren adinarekin oso lotuta dago. Dena den, esperientzia ez da ezinbesteko baldintza; beraz,

**gazteentzako atea ez dago itxita.** Nafarroa EAERek alderatuz gero, oposizioa gainditu eta plazarik lortzen ez dutenek lehentasunezko zerrenda bat osatzen dute, esperientzia gehiago izan dezaketen beste izangai batzuen aurrek. Bestalde, berdintasun planek administrazio publikoko aukeratze-prozesuan sexu arrazoiengatik diskriminaziorik ez egotea ziurtatzene.

**Sektore pribatuan, aldziz, aukeratze-prozesu horiek eta irizpideak ez dira gardenak izaten,** eta kasu askotan, baita enpresak berdintasun plangintza duenean ere, ez da berdintasuneko sarbidea ziurtatzene eta diskriminazioa areagoa izan

daiteke. Gainera, izangaia beste etnia bateko denean edo ezgaitasun bat duenean, diskriminazioa hirukoitzat edo laukoitzat izan daiteke.

Nola islatzen da hori lan merkatuan? Irakaskuntza nahiko arlo feminizatua da orokorrean. Emakumeen presentzia Haur Hezkuntzan ia erabateko da. Ikasketa maila handitzen doan neurri, berriz, hezkuntza sisteman gizonezkoen presentzia handitu egiten da. Beste modu batera esanda, gizartek irakaslearen lana gero eta "intelectualagoa" dela eta "zaintzarekin" harreman txikiagoa duela konsideratzen duen heinean, gizonezkoen presentzia gradualki handitzen da. Horren ondorio dira gizonezkoen presentzia handiena irakaskuntza unibertsitarioran aurkitzea edo Lehen Hezkuntzan azken mailetako irakasle lanpostu asko gizonek betetzea.

Ikastetxeetako zuzendaritzan karguei dagokienez, azken urteetan emakumeen presentziaren handitza nabarmendu behar da. Beharbada joera honek lanpostu mota horrek jasan duen prestigio galtzearekin lotura izan dezake.

Oraindik ere, bai gizonezkoen baita emakumezkoen formazio hautaketak, sexu bakotzari tradizionalki egotzi zaion rolak baldintzatua jarraitzen duela baiezatzen du.

**Gakoa lanpostu jakin batzuetarako sexuaren araberako egokitasun kontzeptua bultzatzen jarraitzen duten balore sexistak aldatzean datza.**

Balio sexista horiek gaur egun ez dira legeen bidez transmititzen, eta hezkuntza formalak ere ez da arduradun zuzena. Balio horiek publizitatearen, abestien, komunikabideen etab.en bitartez transmititzen dira. Beraz, horiek aldatzea eta pertsona kritikoak heztea ez da eskolaren lana soilik, gizarte osoarena baizik.

Ikastetxeetan eta empresetan gardentasuna eta diskriminazioa ziurtatzeko berdintasun planak eta aukeratze prozesuaren irizpide publikoak, besteari beste, horretarako tresna erabilgarriak izan daitezke.

Elisabet García



Emakumei buruz hitz egin genezakeen. Emakume gazte, heldu, zein atsoei buruz. Gazteei buruz hitz egin genezakeen. Mutil gazte, neska gazte zein gazte transgeneroci buruz.

Baina emakume eta gazte garenoi buruz hitz egingo dugu; izan ere, gaur egun eta hemen, emakume eta gazte garenok testuinguru eta bizi-baldintza espezifiko batzuk ditugu, eta, hori horrela izanik, errealtitate honen nolakotasunen gaínean hausnarketa berezitu bat egitea merezi du.

Zeintzuk dira nolakotasun horiek? Alde batetik, diskriminazio bikoitza jasaten dugu emakume izateagatik eta gazte izateagatik. Bestetik, berdintasun formalaren lehen belaunaldia gara.

#### *Diskriminazio bikoitza. Zergatik?*

Bi aldagaiak bat egiten dutelako; **Helduzentrismoan eta patriarkatuuan** bizi gara: “Cuando seas padre (y no madre) comerás huevos”. Alegia, helduak eta gizonak dira gizartearen ardatz.

Gazteok (adina dela-medio) bizitza proiektu propioa garatzeko oztipoak ditugu. “Erdi-hiritarrak” gara, ez hiritar-osoak. Formalki eskubideak izan arren, ez ditugu aukera-berdintasunean garatzen: esaterako, etxebizitzarako sarbidea, enplegu egonkortasuna eta duintasuna, kultur-sorkuntza, parte-hartze politikoa .... mugak ditugu.

Emakumeok, ezin dugu gure ibilbidea modu askean bizi. Izan ere, ezin baitugu ahaztu gizon eta emakumeen arteko botere harremana ezberdintasun baldintzetan ematen dela. Gizezkoiei egozten zaizkien ezaugarriek gizona emakumearen gainetik kokatzen dute oraindik ere. Gure jendartea kontzeptzio honetan errotzen denez, sustrai honek zuhaitz osoa baldintzatzen du.

#### *Kartoizko berdintasuna. Zer dela eta?*

Gaur egungo emakume gazteak berdintasun-formalaren gizartean hezi garen lehenak gara: bozkatzeko eskubidea dugu, lan merkatuta salto egin dugu, hezkuntza akademiko mistoan hazi gara, gure eskubideak legalki aitortu egin dira, berdintasun-legeak eta planak, behatokiak, defentsoriak... martxan jarri dira. Aurrerapauso ikaragarriak izan dira, dudarik gabe. Baino dudarik gabe ere, parekidetasunetik urrun jarraitzen dugu. Eta, are gehiago: **zapalkuntza-mota sotilagoei** (identifikatzen-zailagoei) **aurre egin behar diegu**, horrek dakartzan zaitasunekin.

Genero rolen berezketa **sozializazio-prozesuan** sortu eta iraunazten da, alegia, norberaren identitate eta rol sozialaren eraikuntza prozesuan. Eraikuntza sinboliko hori hainbat esparrutan ematen da: familiar, eskolan, lagunarteko eta gizarte-harremanetan, aisaldian, komunikabideetan, kultura-agerpenetan (zinema, literatura,

# *Emakume gazteak eta emantziapazioa*



arte...). Sozializazio prozesu horretan, emakumeoi paper jakin bat *dagokigu*, eta gizonei beste bat, azken hau abantaila-posizio batean dagoelarik. Nolakoa izan da gaur egungo emakume gazteon sozializazioa?

Rol femenino itxiak barnerarazitugu eta feminitate-eredu honen erakusle diren agerpen ezberdinak topatu daitezke bizitza esparru ezberdinetan: edertasun-eredu zehatz eta hertsia (anglosaxoa, argala, “garbia”, erotika heterosexual maskulinoaren irudikapenaren argira eraikia...), sexualitatea bizitzeko *modelo* bat (heterosexuala, falozentriko...), zaintza-jarrerak (goxotasuna, pazientzia, enpatia...), sentsibilitate tele-gidatua (egoera eta gertaera jakin batzuetara lotuta bakarrik) eta **subjektu kontzientzia falta**, hots, beti norbaiten/zerbaiten beharra duenaren *sindromea*, osagarri izatearen *irudipena*. Gaur egun, emakume gazteok hau guztia gainditua dugunaren sinesmena dugu, baina... horrela al da?

Ez. Eedu hori jarraitzearen, emakume gazteak **irudiaren-industriaren** kontsumitzale nagusiak gara eta industria horrek, aldi berean, irudi zehatz batzuk saltzen dizkigu: kosmetikoak, denboraldi-arropa, kirurgia estetikoa (azken urteetan emakume gazteen artean eztanda egin duena: operatuen %40a 18 eta 21 urte bitarteko emakume gazteak dira. SECPREren arabera:


*Sociedad española de ciugía plástica, reparadora y estética*)... eta abar. Muturreko adibideetara jo gabe, egunerokotasunean, neska gazteok gure irudiaren gainean dugun jarrerak eta gorputzarekiko jarrerak kontutan izanik, kezkagarria den egoera baten aurrean gaudela pentsatzera eramaten gaitu. Irudi eta paper *ideal* eta *ezinezko* hauen aurrean, gure autoestimua

ahultzen da. Esan gabe doa autoestimu ahula oztopo handia dela gure burujabetzarako eta autoerrealizaziorako

Modu berean, **zaintza** jarrerak, goxoak, barneratzen ditugu eta tendentzia horiek emakume gazteen bizi proiektuan eragin handia daukate: esaterako, oraindik ere zaila egiten zaigu gure bizitza amatasunik gabe irudikatzea, eta besteekiko ardura oso barneratuta daukagu. Hau emakumezkotasuna ezinbestez erreprodukzio funtziorekin identifikatzearen emaitza da. Gainera ikusita zaintza lanak, lan merkatuan eta lan merkatutik kango ematen direnak, masiboki emakumeok burutzen ditugula, martxan jarri diren politika ezberdinak (amatasuna kudeatzeko politikak, dependentzia legea etab.), egoera puntualki arintza besterik ez ote duten lortu galdu beharko genieke gure buruei.

Honen ondorio bakarra ez da emakumeok familiarteko-zaintza lanak gure gain hartzen ditugula; adibidez, gure **formakuntza-aukeraketak** baldintzatzen ditu ere. Zer dela eta, bestela, haur-hezkuntzako, erizaintzako, gizarte laneko... ikasle gehienak emakumezkoak dira? Gure sentsibilitate-eredua ere honekin lotuta dago, baita errunduntasun sentimendua ere, guregan hain indartsua.

Eraikuntza sinboliko honen baitan, **emakumea beste zerbaiteen osagarri** bezala irudikatu izan da mendetan zehar (saihetsa, badakizue), eta honek gaur egun eragina du ere: nerabeen artean ematen diren harreman afektiboetan, adibidez, emakumeengan igarri daitezkeen joerak dependentzia baten eskuetan erahilak izan dira **biolentzia sexistaren** ondorioz.



harremanklasikoaker reproduzitzen ditugu.

Osagarria eta osatuaren, *nagusia* eta *subordinatuaren* arteko, banaketa honen adierazgarri gordina indarkeria da, zentzu orokorrean ulertuta: emakumezkotasunari lotzen dizkiogun “atributo naturalak” eta horren gainean eraikitzen ditugu eskema eta egitura sozialak indarkeria dira bestelako ereduak onartzan ez dituzten heinean (zigorraren mehatxuarekin): indarkeria da lan-merkatuan ama izateko garaian gaudelako oztopoak izatea; indarkeria da, ere, emakume eta gazte izateagatik pobre izatera kondenaturik egotea; eta, nola ez, biolentzia da gaelean etxera bakarrik itzultzearakoan beldurra izatea.

Eedu herti hauek apurtzen saiatzen garenean, indarkeria zuzena pairatzen dugu: 2003 eta 2008 urteren bitartean, 30 urte arteko 121 emakume gazte gizon baten eskuetan erahilak izan dira **biolentzia sexistaren** ondorioz.

Ezagutzen diren kasuen artean, bai biktimen bai erasotzaileen adina gero eta baxuagoa da: 016 telefonora deitu zutenen %40ek 30 urte baino gutxiago zituzten, eta jakina da 14-30 urte bitarteko biztanleak %40a baino portzentaje txikiagoa ordezkatzen dutela. Indarkeria saihesteko abiatutako politiketan eta imaginario kolektiboan indarkeriaren aurrean hartu beharreko jarreraren baitan emakumea/erasotua egoerari aurre egiteko kapaza den “subjektua” baino, “objektua” izaten jarraitzen du (norbaiten laguntza behar duena, beldur dena, indarkeria eman aurretikako jarrerak identifikatzeko gai ez dena...).

Hau ez da guztia. **Emakume eta gazte izatea pobrezia** eta arrisku sozialaren (zaurgarritasun, erasotasun), sinonimoa da. Arestian aipatu bezala, bi aldagai-k bat egiten dute: Lan merkatuan, gazteok prekariatatea jasaten badugu, are gehiago emakume gazteok: behin-behinekotasun maila handiagoa gure adineko gizonekin alderatuz,

soldata baxuagoak, jarduera-tasa txikiagoa, ezkutuko ekonomian presentzia handiagoa, zatikako jardunaldiatarako tendentzia... (ikus 6. orrialdea). Egungo emakume gazteon belaunaldia, belaunaldi formatuena eta prestatuena dela entzuten da maiz, baina aldaketa hauek lan merkatuan duen isla eskasa da. Eta, bigarrenez eta enpleguarekin lotuta, etxebizitzarako sarbidean emakume gazteek topatzen ditugun oztopoak handiagoak dira: emakume gazteek ahalegin ekonomikoa handiagoa beharko lukete emantzipatzeko, eta hala ere, emakume gazteen emantzipazio tasak altuagoak dira gizonena baino. Honek batetik, emakumezkoek gastu-gaitasun murritzagoa eta **pobrezian erortzeko arrisku handiagoa** dutela adierazten du eta, bestetik, familiarekiko dependientzia ekonomikotik **bikotearekiko dependientzia ekonomikora igorotzen direla**.

Aipatutako faktore guztiak (biolentzia sinboliko eta estrukturalaren agerpenen) harira, eta kontutan izanik emakume gazteok bizi dugun prekariatatea, agerian geratzen da gure **hiritaratasuna osotasunean garatzeko dugun zaitasuna**. Patriarkatuak pribatutasuna (erreprodukzioa, zaintza...: femeninoarekin lotuta) eta publikotasuna (lan produktiboa: gizonezkotasunarekin) sexuaren arabera banatzen ditu, eta esan bezala, emakumea pribatutasunera alboratua izan da mendetan zehar. Gaur egun emakume gazteok ere gaitasun sozialak ez ditugu gizonezkoak adina landu. Honengatik guztiagatik, ez dugu espazio publikoetan modu berean parte hartzen eta gure irudia ez dugu hein berdinean publikoki eraikitzen. Gainera, boteregunetan eta **erabaki-guneetan** gure

**presentzia eskasagoa** da. Adibidez, elkartegintzan emakume asko dago, baina ez hainbeste erabaki/diruzaintza/bozeramaile arduretan. Berdintasun-kuontengatik ez balitz (eta horiekin ere ez da lortzen), emakumeek oraindik ere presentzia oraindik ere eskasagoa izango genuke (gutxi balitz, emakume horien artean, oso-oso gutxi dira gazteak). Pribatutasuna/erreprodukzibotasuna eta publikotasuna/produktibitatearen banaketa honek beste hamaika agerpen diitu: **hirigintza** (lan produktiboen neurria diseinatutako hiriak –aktibitate ekonomikora begira- eta gizonezkoen izenak baino ez dituztenak), **osasungintza** (gizonezkoaren anatomia eta patologiak ardatz dituena eta, adibidez, abortu eta haurdunaldi-bizipenaren askatasuna ahalbidetzen ez dituena)...).

Honek guztiak kezkatzen gaitu. Ez bakarrik emakume gazteon bizitza-proiektuagaratzerakoan suposatzen dituen trabengatik, baizik eta, larriagoa gure ustez: **traba hauet detektatzen ez ditugulako**. Kezka honek eraman gaitu Ahotik At-ean ezinegon hau azaleratzen eta Gazteriaren Kontseilu bezala jarrera hartzen. Prozesu guzti honetan zehar ezagutu ahal izan ditugun errealitate ezberdinek zuekin konpartitu nahi dugun hausnarketara eraman gaituzte: Persoan gazteon emantzipazioa bultzatu eta indarteko, edukiz betetzeko eta prozesuan zehar autonomia bultzatzeko, sexu-identitateen eraikuntza irauli behar dugu. Horren ordez, femenino/maskulinoa, emakume/gizon dikotomia estu hori gaintituz **‘identitate sexual’ anitz eta aldakoren aldeko apustua egiteko garaia heldu da**.

/// AHOTIK AT

# "Muturreko higienismoaren garaian bizi gara, gure jario propioekiko urrun"



\*Ehuyar: menstruar

Hilekoa ez da bakarrik hilabeteroko pintzelkada gorria. Oleo osoa ulertzeko moduan eragina izan dezakeen, eta duen, zerbait da. Eragina du gorputza ulertzeko moduan; emakume identitatearen eraikuntzan; sexualitate eta osasun eskubideen hautematean; higiene edo garbitasunaren kontzeptuan; adierazpen artistiko eta kulturaletan. Miren Guilló Arakistain (1983, Elgoibar) odol-isurketaren bestelako esanahien bila dabil. Hilekoa: *diskurtsoak, praktikak eta tentsioak* izeneko bere tesian.

■ **Gizarte Hezkuntzan eta Pedagogian lizentziatu ondoren, 'Ikerketa feministak eta generokoak' masterra egin zuen, antropologiko espezialitatean.**

■ **Nomantxakolorea** kolektiboaren partaide da. Talde horretan, "hilekoaren eta zikintasun/garbitasunaren esanahi politikoekin jostatzen" saiatzen dira.

**Hilekoa gaitz, zikinka eta kutsadura gisa ulertu izan da mendean zehar Mendebaldean. ¿Zer nolako eragina du pentsamolde horrek gaur egun?**

Orokorean, emakumea, eta emakume gisa definitu den gorputza, kutsadura kontzeptuarekin lotu izan da historian zehar. Hilekoa kultura askotan zikin eta kutsakor bezala ikusi izan da eta Mendebaldeko kultura mediko-zientifikoan, gaixotasun gisa definitu da, kontrol eta debekuen iturri bihurtzeraino. Gaur egun ikuspegi hori apur bat leundu den arren, kontrol hori erregulazio eta medikalizazioaren bitartez ematen da. Muturreko higienismoaren garaian bizi gara, gure jario propioekiko urrun. Gorputzetik aztertzeak kulturarekiko eta jendarteko asko esaten digu, eta hilekoa zikina eta ezkutatu behar den zerbait bezala hartzea oso sinbolikoa dela uste dut.

**¿Nola eragiten du publizitateak eta industria kulturalak hileko ulertzeko, bizitzeko eta kudeatzeko moduan?**

Publizitateari dagokionez hedatzen den mezua bistakoa da: uneoro zikinak gaudela, usain txarra dugula, arriskuan gaudela eta zera hori ezkutatu beharra dugula transmitzen da. **Iragarritako produktuek segurtasuna, ongizatea eta garbitasuna eskaintzen digute, ukazioaren kultura bultzatuz: likido urdinaren metafora, (odolareneko antitesia) esanguratsua da, ez garbitasuna urdina da, gardena... alutik datorren odola zikina.**

Hau indarkeri errepresivo gisa ulertu behar dugula uste dut. Horrela, odola isurtzen dugun egunetan, zikloa ukatzeko beharra sentzen dugu, auto-erregulatzen gara. Ukapenak sortutako arazoak, sentsazioak edota deserosotasunak jazartzaleak dira, gorputzaren aurkako eraso bezala definitu beharko genituzke.

Eta odol isurketa kudeaketarako industria komertzialari dagokionez, tanpoiak eta konpresak egiteko zuritzeko eta hobeto xurgatzeko hainbat produkto erabiltzen dira: Dioxina, Asbestoa eta rayon, hauek gure gorputzerako erabat kaltegarriak izanik. Bestalde oso kutsatzaleak dira eta urte mordoa behar dute desegiteko. Mundu guztiko emakumeok sistema hauek erabiliko bagenu, ez litzateke sustengarría izango. Horrez gain, produktuen prezioa ez da makala eta luxuzko produktuen BEZA daukate, %16a. Kontsumo logikei jarraituz, beharrak areagotzen dituzte eta espezifikatu: odol asko duzunerako, gutxiago duzunerako, hilekoa amaitzen zauden egunetarako edota gauerako konpresa. Gure behar fisiologikoak kudeatzeko praktika zehatzak bultzatzen dira, emakumearen gorputza merkatu bihurtuz.

**Emakumeek ez dute hilekoabizitza osoan, eta badaude hilekorik ez duten emakumeak. Nola bizi da hileko-eza? Zer nolako eragina du emakumeen bere burua ulertzeko moduan?**

Sarri esaten dugu hilekoaren emakume guztiek dugun zerbait dela. Mendebaldean, biomedikuntza eta psikologia zientzien aldetik, sexuak eraikitzeo eta desberdintzeko zurrunki definitu dira emakumearen eta gizonezkoaren gorputza. Hilekoaren prozesu fisiko/biologikoa denez,

ugalketa funtzioarekin lotua (ez soilik, beste funtziobiologiko batzuk ere baditu), emakume gorputza definitzeko zutabe garrantzitsua izan da, naturalena hilekoaren izatea dela argudiaturaz. Hala ere, obulatzen duten emakumeek soilik dituzte odol jarioak eta obulazio garaia eraginak adalgarai sozial, geografiko eta denborazkoen arabera moldatzen dira. Adibidez, Euskal Herrian bertan duela mende batetik hona lehen hilekoen eta azken hilekoen adin garaia aldatu dira. Hortaz, erabilera politikoa agerian gelditzen da modu absolutuan emakume guztioak daukagula baieztagatzen dugunean. Hileroko emakume gorputzaren espezifikotasuna bada ere, definizio politikoa horrek bi arrisku ditu: Alde batetik, hilekoaren eraginak emakumeak hutsune bezala bizi eta bestetik, emakumea, etengabe ematen den bezala, bere ugalketa funtzioekin definitzen dela, etengabe sozialki ezartzen den funtzioa berretsi.

**¿...eta kontrakulturak? –zein edo zeintzuk dira hilekoaren kontrakulturak?**

**Hilekoaren kontrakulturak, hilekoaren ikuspegia hegemonikoaren aldean sortzen diren bestelako balio eta praktikez osatzen dira;** alegia, hilekoaren ikuspegia negatibo horrekin kezkatuta dauden esparru anitzeko emakume, kolektibo edota mugimenduak, eta hilekoari, modu desberdinatan, bestelako esanahiak ematen saiatzen ari direnak. Horretan zentratu naiz batez ere nire lanean. Alde batetik, kudeaketa alternatiboa dago, odol isurketarako bestelako produktuak erabiliz (zuritu gabeko zuntzak, konpresa eta tanpoiak, telazko konpresak, ilargi-kopa, esponjazko

tanpoiak, kuleroak...), praktika politikoa eginez. Horrez gain, badaude gaiaren inguruko salaketa egiten dutenak, fanzineak eginez, tailerrak eginez, bestelako produktuak sozializatzu, adierazpen artistikoak bitartez edota sexualitate/ugalketa eta osasun eskubideen aldarrikapenen bitartez. Praktika politiko feminista eta jardunbide hauek oso interesgarriak direla uste dut. Planteamendu horien jatorrien aniztasuna handia da, baina jardunbide hauek asko dute amankomunean. Gehienek egungo sistema ekonomikoaren eta Mendebaldeko biomedikuntza eta osasunaren ikuspegi menperatzaileekin nahiko jarrera kritikoa dute, elikadura, osasunaren autogestioa eta bestelako kontsumo praktiketan islatzen delarik.

**Bestalde, zer da hilekoaren ikuspuntu biologista edo esenzialista bat izatea? Zure tesian aipatzen duzu...**

Kasu batzuetan, dibulgazio lanetan eta kontrakultura menstrualetan, kritikotasuna eta alternatibotasuna eman arren eta ikuspegi negatibo horren aldean positiboagoa bilatu nahi den arren, hainbat arriskuren aurrean aurki gaitezke. Batzuetan natura eta kultura dikotomizatzeko joera dago, emakumea naturarekin lotzen delarik. Bestalde, emakumezkozak eta eraikitzen da gizonezkozak aldean, diskurso biologista batetik identitate femenino hori eraiki eta naturalizatzeko joera emanet. Hau da, emakumearen gorputzaz modu positiboago batean ari gara, tradizioz femeninoak izan diren balioak goraiapatz, baina gorputz erabat desberdinez hitz egiten dugu,

/// AHOTIK at

# MUJER DISIDENTE BUSCA MUJER DE LA MISMA CONDICIÓN ...

Azken hamarkadetan, gizarte mugimenduen indar galera eta mobilizaziorako gaitasunaren ahultzea emana. Modu berean, emakumez osatutako elkartea, sare eta taldeek ere beherazko joera bizi izan dute, batez ere 80.hamarkadan mugimendu feministak izandako goraldiaren ostean. Inoiz baino indibidualistagoa da eta kontsumo ohituretan errotuagoa dagoen gaur egungo jendartearren dinamiek pertsonen arteko elkarlana, kolaborazioa, lan ideologikoa eta politikoa sustatzen duten elkarteen parte hartza oztopatzenten dute. Emakumeen eskubideen alde eta patriarkatuaren kontra lan egiten duten elkarteen, gainera, berdintasun formalaren eskuratzek ekarri duen nolabaiteko lasaitza eta historikoki mugimendu feministarenak izan diren aldarrakapenen instituzionalizazioa eman dela kontutan hartuta, egoera ez da ospatzeko moduko. Hala ere eta zorionez, Euskal Herrian emakume antolatuak egon badaude, mota askotariko taldeetan eta aktiboki lanean. Oztopoak oztopo, eta zaitasunak zaitasun, mugimendu feministak bizirik dago eta gainera euskal **mugimendu feministak anitza eta gaztea sortzen eta indartzen ari denaren susmoa dugu.**

Hona hemen, kalean, sarean, manietan, hitzaldietan, prentsan eta tabernetan topatu ditugun batzuk. Beraien bete dituzte honako fitxa hauek.



|                                   |  |
|-----------------------------------|--|
| <b>IZENA</b>                      | <b>Asociación de Mujeres Inmigrantes y Vascas "Garaipen"</b>   |
| <b>NOIZ SORTUA</b>                | 7 de mayo de 2002  |
| <b>PARTAIDE KOPURUA</b>           | 15   |
| <b>LAN EREMUA</b>                 | Formación y reflexión:<br>Apoyo a mujeres inmigrantes.<br>Procesos de empoderamiento y organización social.<br>Sensibilización y denuncia social ante violaciones de los derechos de las mujeres y de las personas inmigrantes.  |
| <b>HELBUROAK + ALDARRIKAPENAK</b> | Asociación feminista multicultural para:<br>Promover el liderazgo y protagonismo de las mujeres, en especial de las inmigrantes, en la defensa de sus derechos.<br>Facilitar organización social y procesos grupales de empoderamiento para las mujeres.<br>Crear un espacio de convivencia multicultural.<br>Promover lazos de solidaridad con los pueblos del Sur. |
| <b>EKINTZAK, EKIMENAK ...</b>     | Cursos de género e inmigración.<br>Grupos de apoyo para mujeres inmigrantes.<br>Espacio de convivencia multicultural entre vascas e inmigrantes.<br>Jornadas de debate sobre inmigración y feminismo.<br>Terapia respiratoria: Aliento Experimentable.   |
| <b>KONTAKTUA</b>                  | TELEFONO: 943 57 85 68<br>EMAIL: <a href="mailto:garaipenpv@yahoo.es">garaipenpv@yahoo.es</a><br>WEB eta BLOG: <a href="http://asociaciongaraipen.blogspot.com/">http://asociaciongaraipen.blogspot.com/</a><br><a href="http://www.garaipen.info/">http://www.garaipen.info/</a>  |

| <b>IZENA</b>               | <b>Eutsi</b>  |
|----------------------------|---|
| NOIZ SORTUA                | Orain dela 2 urte inguru  |
| PARTAIDE KOPURUA           | 5 neska   |
| LAN EREMUA                 | Musika taldea   |
| HELBUROAK + ALDARRIKAPENAK | Ondo pasatzea, gustatzen zaiguna egiten eta musikaren bidez gure sentimendua, pentsaera, etab. transmititzen.   |
| EKINTZAK, EKIMENAK ...     | Kontzertua ematen ditugu eta bilerak izaten ditugu gure kezen inguruan, feminismoaren inguruan, etab hitz egin eta hainbat motatako ekintzak burutz.  |
| KONTAKTUA                  | TELEFONO: 626411681 (Itsasne) edo 677807328 (Intza)<br>EMAIL: <a href="mailto:Itsasne_gc@hotmail.com">Itsasne_gc@hotmail.com</a> edo <a href="mailto:Intza92@hotmail.com">Intza92@hotmail.com</a><br>SARE SOZIALA: <a href="http://www.myspace.com/eutsitaldea">www.myspace.com/eutsitaldea</a> |

| <b>IZENA</b>               | <b>MEDEAK</b>   |
|----------------------------|---|
| NOIZ SORTUA                | 2000  |
| PARTAIDE KOPURUA           | 10 bat lagun. ("Sarean lan egiten dugunez oso zaila da kontatzea zenbat jende egiten duen lan gurekin")   |
| LAN EREMUA                 | Donostian bizi gara baina mugatatik haratago joatea gustatzen zaigu. Sarean funtzionatzen dugu beste hainbat kolektiborekin. Bartzelonakoak, Kitokoak, Zaragozakoak...  |
| HELBUROAK + ALDARRIKAPENAK | Feminismoa lantzen dugu. Orain, TransFeminismoa. Sexualitatea eta gorputza dira gure gai zentralak. Momentu honetan binomio sexuala (emakume eta gizon bi sexu erreal bezala ulertzear) apurtzeko egiten dugu lan. Sexu eta genero anitzen alde egiten dugu lan.  |
| EKINTZAK, EKIMENAK ...     | Jardunaldiak antolatu eta besteek antolatzen dituzten ihardunaldiaren parte hartza ere gustatzen zaigu. Drag King tailerrak egiten ditu. Performaceak. Eta gure inguruko koordinadora feminista guztietan parte hartzen dugu maniak antolatzen. Beste sare batzuekin ere lan handia egiten du: TransDespatologization kanpainan esate baterako: <a href="http://stp2012.wordpress.com/">http://stp2012.wordpress.com/</a> |
| KONTAKTUA                  | EMAIL: <a href="mailto:medeaking@gmail.com">medeaking@gmail.com</a><br>BLOGA: <a href="http://medeak.blogspot.com/">http://medeak.blogspot.com/</a>   |

| <b>IZENA</b>               | <b>Euskal Herriko bilgune feminista</b>   |
|----------------------------|---|
| NOIZ SORTUA                | 2002  |
| PARTAIDE KOPURUA           | 110   |
| LAN EREMUA                 | Herriak<br>Sozieconomia<br>Kultura<br>Hezkuntza<br>Komunikabideak   |
| HELBUROAK + ALDARRIKAPENAK | <ul style="list-style-type: none"> <li>Emakumeon eskubideen aldeko borroka antolatzea: emakumeon eskubide formalak errealeko bihurtzeko borroka, artikulatu eta antolatu behar dugu.</li> <li>Emakumeok aktibatzea eskubideen aldeko borrokan: adin, kolore eta ideologi guztietako emakumeak eskubideen aldeko borrokan aktibatu behar ditugu, bakoitzak bere esparrutik eta aliantzak sortuz. Emakumeak gure eskubideen borrokan aritu behar garen kontzentzia zabaldu behar dugu.</li> <li>Mugimendu Feministarekin aliantza puntualak lortzea eskubideen aldeko borrokan: dinamika feminista bateratua.</li> <li>Bilgune feministaren proiektuaren erreferentzia lantza: gure proiektuaren oinarriak kontutan hartuz, Euskal Herri feministaren sortearen bidean diskursoa garatu. Borroka ideologikoa. Proposamen orokorrean biltzen diren lehentasuneko helburuak berreskuratuko ditugu.</li> </ul> |
| EKINTZAK, EKIMENAK ...     | Data zehatzetan mobilizazioak<br>Mugimendu feministarekin elkarlana<br>Autodefentsa<br>Jai parekideen kanpaina ...  |
| KONTAKTUA                  | TELEFONO: 943590902<br>EMAIL: <a href="mailto:ebf@bilgunefeminista.org">ebf@bilgunefeminista.org</a><br>WEBGUNEA: <a href="http://www.bilgunefeminista.org">www.bilgunefeminista.org</a>  |




# Eskubide erreproduktiboak eztaba idagai

## Nola bermatu emakume guztiok gure sexualitate eta ugaltze gaitasunaren gainean erabakitzeko dugun eskubidea?

2005. urtean, Abortuaren despenalizazio partzialaren Legeak 20 urte betetzen zituenean, **Nafarroan Abortatzeko Eskubidearen Aldeko Batzarra** osatu genuen eragile feministak desberdinako emakumeok. Ordutik, Nafarroan izan diren sexu eta ugalketa eskubide urraketen salaketan eta gure gorputzaren kontrolaren aldarrikapenean aritu izan gara izaera desberdineko ekimenak kaleratuz.

Egun, lau urte eta gero "Sexu eta ugalketa osasunerako zein haurdunaldiaren borondatezko eteterako Lege Organikoa" sinatu dutenean, eta honen garapena nola burutuko ote den jakin aurretik, mesfidati agertzen gara. Guzti honegatik, gure aldarrikapenak gure ibilbidearen hasieran ezarri genituenen antzekoak dira: **Abortoa libre eta doan osasun sare publikoa**.



Zergatik ez dugu gustuko lege berri hau?

1.- Emakume haudunak eskatuta, haurdunaldia eten ahalko da aurrenenko hamalau asteetan. Emakume askok epe labur batean azalpenik eman gabe abortatu ahal izatea aurrerapen bat da, baina **aukeratu duten epea laburra da**, abortoa askea eta doan aldarrikatu dugun emakumeontzat euskarri gutxien duen epea da. Gogoraziko dugu europar legeri aurreratuetan, 24 aste inguruko tarteak direla Haurdunaldia Borondatez Eteteko (HBE) epeak.

2.-Emakumea bere eskubideetaz, zerbitzuez eta laguntza publikoen inguruari informatza baldintza derrigorrezko da, eta hiru egun pasa behar dira informazioa ematen den egunetik interbentzioa burutzen den arte. Puntu honen kutsu paternalista galdera batera garamatza: benetan uste al dute emakumeek ez dakigula gure erabaki propioak hartzen eta gure hausnarketa tarteak zehazten?

3.- Salbuespen gisa, etetea burutu ahalko da osasun arrazoak direla medio, gestazioen lehenengo 22 asteak betetzen ez diren bitartean eta txosten mediku batean agertzen bada edota jakintzagai anitzeko batzorde kliniko batek horrela baiezta ondoren. Hau atzerapauso nabaria da. 22. astetik aurrera, libeki erabakitzearren eskubidea ezezen da eta, honetaz gain, emakumea batzorde kliniko baten erabakiari men egitera derrigortzen du. Gogoraraziko dugu, bide batez, 1985. urteko Legean emakumearen bizitza edo osasuna arriskuan zegoen kasuetan, haurdunaldiaren etetea ez zuela eperik.

4.- 16 eta 17 urte bitarteko emakumeak derrigortuta egongo dira beraien abortatzeko erabakiaz gurasoak informatzera. Beste behin ere, paternalismo autoritarioa gailentzen da eta gazteak arriskuan jartzen dira. Logikoa da pentsatzeak emakume gaztea bere familiaren erreakzioaren beldur denean, informazio hau eman gabe abortatzen saiatzea,

bide klandestinoak edo atzerrian egindakoak ugaritzuz. Bestalde, legeak ez du abortoa kode penaletik ateratzen eta, ondorioz, kasu batzuetan oraindik delitu izaten jarraitzen du. Testuan erlazio zehaztugabe eta urria agertzen da, emakumeek osasun sare publikoan edo jatorrizko komunitateetan eskubide honen erabilera bermeaz hitz egitean. Honetaz gain, ez du bermatzen antisorgailuen dohaineko eskuratzea.

**"Legeak ez du abortoa kode penaletik ateratzen eta, ondorioz, kasu batzuetan oraindik delitu izaten jarraitzen du"**

Ugal eta sexu eskubideak bermatzeko, legean barneratu diren neurriak eta politikak urriak dira baita ere. Emakumeok ongi dakigu modura, sexu-hezkuntza bermatzen duten zerbitzuak gutxitu dira, izaera sanitario asistentziala gailenduz.

**Emakume gazteen eta emakume etorkinen artean HBEEk gora egin dute azkeneko urteetan.** Ezaguna da gainera prebentzio metodoak lortzeko dagoen zaitasuna, batez ere larrialdiko pilularen kasuan.

Nafarroako Abortuaren Eskubidearen Aldeko Batzarretik baieztagatzen dugu Gobernuk, abiatzen saiatu diren prozesu plural eta irekitik urrun, itxurakeria hutsean ibili direla, emakume orok gure gorputza kontrolatzeko dugun eskubidearen aldeko jarrera ausarta eta argia izatea ekidituz. Gure ustez, jendartean eman beharko den eztabaidea honako hau litzateke: "Nola bermatu emakume guztiok gure sexualitate eta ugaltze gaitasunaren gainean erabakitzeko dugun eskubidea, tutoretza paternalista eta autoritarismo errepresiboa etik urrun". ■

Oihana López  
Abortatzeko eskubidearen aldeko Nafarroako Batzarra.

## La Interrupción del embarazo en datos

Tasas de interrupción Voluntaria del Embarazo en mujeres residentes en la CAPV según grupo de edad. CAPV 2007.



**"El perfil general es el de una mujer entre 20 y 29 años, en situación laboral activa, que tiene o está cursando estudios de segundo grado, segundo ciclo o superiores y no se ha sometido nunca a otra interrupción voluntaria del embarazo".**

FUENTE: INFORME DEL REGISTRO DE INTERRUPCIONES VOLUNTARIAS DEL EMBARAZO / Servicio de Registros e Información Sanitaria Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, Marzo 2009.

"Todas las culturas y sociedades construyen su Moral Sexual Cultural. Todas, incluso la nuestra"

## "Mujer joven busca..."

Cuando me plantearon escribir sobre las mujeres jóvenes y su sexualidad, lo primero que me pregunté fue si realmente podemos hablar de un tipo de sexualidad femenina particular de las jóvenes, o si realmente el hecho de "ser mujer" es lo que marca la especificidad.

Para hablar de la situación de las mujeres jóvenes actuales os propongo un viaje a la sexualidad de nuestras abuelas. Creo que es interesante saber de dónde venimos para poder vislumbrar a dónde queremos llegar (si es que realmente hay algún lugar al que "hay que" llegar).

Cuando alguna vez intenté hablar con mi abuela de cómo había sido la relación con mi abuelo (cómo se conocieron, cómo fue el cortejo, sus primeros besos, la boda...), lo único que recibía eran negativas: "janda, calla, de qué tonterías quieras hablar!".

Seguramente a muchos y a muchas que estéis leyendo esto os habrá pasado algo parecido, y os habréis percatado de que la sexualidad era un tema tabú hasta hace bien poco.

Quienes somos profesionales de la sexología sabemos que todas las culturas y sociedades construyen su "Moral Sexual Cultural". Todas, incluso la nuestra actual. ¿Qué queremos decir con esto? Pues que **las sociedades necesitan controlar a sus ciudadanas y ciudadanos (especialmente sus sexualidades) y para ello construyen valores, normas, patrones de conducta...** que nos dicen lo que está bien, lo que podemos hacer y lo que no. En algunas ocasiones a lo largo de la historia, para quitarle la carga moral a esas normas, se les ha arropado de argumentos científicos. El caso es que tanto por ser cristianos/as creyentes (si incumplían podían ir al infierno) como por creer en razones científico-sanitarias (podían contraer enfermedades terribles), la población

en su conjunto no las cuestionaba, aunque siempre ha habido individualidades a contracorriente.

Evidentemente, muchos han sido los "mitos" (aunque mejor tendríamos que hablar de creencias erróneas) que han intentado mantener la sexualidad de las mujeres bajo control. Voy a exponer algunos de ellos, que seguramente hoy harán gracia, o incluso que nos harán pensar que nuestros antepasados/as eran bastante ingenuos/as. Vamos a ver unos ejemplos: "una mujer honrada no puede sentir placer", "las mujeres tenemos envidia del pene: de hecho, el clítoris es un pene en miniatura", "la mujer es inferior al hombre: está hecha con una costilla del varón", "para ser feliz debe permanecer en el hogar: buena madre, buena esposa", "los matrimonios deben tener las criaturas que dios quisiera...".

Así, las mujeres hemos crecido pensando que no teníamos genitales, que la vulva era la falta de pene, que acariciarnos el clítoris era de "guerras", que no deberíamos mostrar nuestros deseos, que nuestro único camino para la realización personal pasaba por ser madres y esposas, etc.

Sin embargo, hace unas cuantas décadas (en nuestro entorno a finales de los años 70) y a cuenta de la tan manida "Revolución Sexual", esa moral sexual cambió y se comenzaron a construir nuevas falsas creencias, que son las que hoy perviven: "El orgasmo es imprescindible para el bienestar sexual de la mujer", "una característica de la sexualidad femenina es la multiorgasmia", "una mujer que se sienta realizada por sus labores de ama de casa y madre es víctima del patriarcado" ... ¿Estos mitos nos hacen reír como los que hemos comentado anteriormente o creemos que son ciertos? Quizás necesitemos unos cuantos años más para darnos cuenta de su influencia en nuestra sexualidad...

Ana Ramírez de Ocáriz Sorolla. Sexóloga  
EMAIZE Centro Sexológico – Sexología Zentroa  
[www.emaize.com](http://www.emaize.com)



## HEZKIDETZA: EREDU HEZITZAILEA

Pertsona guztio jendarteratze prozesu sexista baten bidez, neska edo mutila nola izan irakasten digute. Harremanen eta botere arteko desoreka bat sortzen den hau, non genero batek botere handiago daukan. Erlazionatzeko modu honetan indarkeria eta bazterkeria gertatzen dira eta eredu hau aldatu beharra dago, jendardearen erdia bigarren kategoriako pertsona bezala bizi baita. Hau guztia kontuan hartuta, feminismoaren mundutik eredu berri bat proposatu zuten: HEZKIDETZA. Urtxintxa Eskolan, duela urte nahikotxo jarri zen martxan aipatutako eredu hau. Hezkidetza, jendarde sistemaren parekidetasuna lortzeko aukera da, hau da, gure sexu eta generotik at heztek aukera, pertsona bakoitzaz bere banakotasun eta berezitasunekin heztea. Gaur egungo irizpide sexistak jarraitu gabe, gure sexuari egokitutako rol, balore, portaera eta abar kontuan hartu gabe heztea da. Hezkidetzen helburuak pertsona autonomoak izatea, gure bizitzaproietuen jabe izatea, hurbileko inguruarekin elkarbizitzan egotea eta behar ditugun gaitasunak garatzea dira. Eskubide berdintasunaren ideologian oinarritzen da eredu hau, askatasuna, ezberdintasuna eta elkartsuna nabarmentzen dituelarik. Gure heziketan parte hartzen duten hainbat faktoreen eragina bilatu behar dugu, bai aisialdi munduan murgilduta gauden heztaileok, bai hezkuntza formalaren barruan gauden heztaileok. Horretarako, beharrezko da lehenengo gure heztek eran ditugun gabeziak hautematea.

Hezkuntza formalaren munduan, eskola mistoaren eta hezkidetzailearen kontzeptuak askotan nahastu egin dira eta sinonimo bezala erabili dira. Gaur egun, argi dago, eskola mistoaren bidez ez dela benetako berdintasuna lortzen, eredu maskulinoak indarra zuzentzen diren elkarri, denok batera gaudenean zelako parte hartza duten batzuek eta besteek, zelako espazioa dugun eta nola egoten den banaturik umeen artean, zer jostailu ditugun (zer bultzatzen duten), nola banatzen duten materiala beraien artean, zein den liderra... ■

## Feminismo Y Movimiento LGTB

El movimiento a favor de los derechos para las mujeres debemos entenderlo como un movimiento que busca la igualdad, no la superioridad.

El movimiento feminista dista mucho de otras realidades que podemos denominar *hembraismo*, el cual, al igual que el machismo, busca la superioridad.

Entendemos que el movimiento feminista es un movimiento similar al LGTB, que parte de un conflicto social: la falta de aceptación social y legal de la igualdad.

Es histórica la reivindicación de las lesbianas y mujeres transexuales y bisexuales, de sus desigualdades y discriminaciones. Debemos reconocer y denunciar que las mujeres sufren desigualdad, y allí donde la sufren, las lesbianas, bisexuales y transexuales sufren una discriminación doble: por ser mujeres y por ser lesbianas, transexuales o bisexuales. Esta doble herida constituye una brecha que esconde a miles de mujeres, y especialmente a las jóvenes, en sus puestos de trabajo, de estudio y en sus entornos sociales.


Por eso, en 2010 queremos reivindicar una educación transformadora, que transforme nuestra percepción de las jóvenes transgéneros (incluidas transexuales) para que avancemos en la aceptación social de estas personas y además mujeres, y para que avancemos también en el ámbito legislativo con leyes que otorguen derechos a esta parte vital e importantísima del colectivo LGTB.

Ha sido, es y será siempre nuestra mayor reivindicación en el ámbito legal, la promulgación de una Ley Integral de Transexuales en la CAV, como la aprobada en Navarra, para que todas las jóvenes transgénero **puedan vivir en igualdad** e integradas en nuestra sociedad, como la sociedad no ha permitido a sus generaciones anteriores. ■

Suberri Pascual Miqueláñez  
Gaztegehituko Ko-koordinatzailea.

## Lerro artean //

El machismo mata, empobrece y atonta, por ese orden. Amelia Valcárcel  
Las chicas buenas van al cielo. Las malas van a todas partes. Mae West



### Feminismo para principiantes

Nuria Varela.  
EDICIONES B.

Hasiberrientzat, hasi eta buka probetxugarria. Baita feminismoari buruz dena ez dakitelako susmatzen duten beteranoentzat ere.

Nortzuk ziren sufragistak? Zergatik feministei mari-mutil, itsusi eta sexualki asegabeak deitu (deitzen) zaien? Zertan datza maskulinitatea? Zergatik matxismoa eta feminismoa ez dira gauza bera baina alderantziz? Zalantzak argituko dizkizu Nuria Varela kazetariaren lan honen.



### Devenir Perra

Itziar Ziga  
MELUSÍA  
<http://devenirperra.blogspot.com/>

Acción, transformación, cambio... devenir. Nunca sabes en qué puede devenir algo cuando vives al día. De eso sabe mucho Itziar Ziga, precaria, feminista, perra con tacones o camionera panfletera ... En su primer libro, la lasartearra afincada en Barcelona nos muestra un retrato colectivo y biográfico, que trata sobre la feminidad radical subversiva antipatriarcal. Desde un estilo y lenguaje callejero y sin complejos, Itziar Ziga nos habla de su manera de ver la vida, la lucha, el activismo y las identidades.

### Femipedia

[www.femipedia.es](http://www.femipedia.es)



Wikipediaren eredua jarraituz, Interneteko gaztelaniazko lehen entziklopedia-feminista sortu da. Bertan, hainbat kontzepturen azalpen, emakume feministen biografia, efemerie... aurkitu ditzakezu, besteak beste. Oraingo 600 artikulu daude; zuk ere zure harri-koskorra jarri dezakezu!

### Trivial: ¿Qué es el feminismo?



[www.mujeresjovenes.org](http://www.mujeresjovenes.org)

¿Qué es lo contrario de Machismo?  
A. Hembrismo  
B. Feminismo  
C. Paso Palabra

¿Las feministas son femeninas?  
A. No, según Froiz quieren tener pene.  
B. ¿Qué es ser femenina?  
C. Según la revista ¿Me dices Qué, no son masculinas sino más culonas. Galderak, adarjotzeak eta aipamen historikoak lapikoan sartu eta... feminismoari buruzko Trivial-a jai da! Estatuko 8 autonomía erkidegotan presente dagoen (EAEn ez, Nafarroan bai), emakume gazteen federazioa sortu du (zehazki, Federación Mujeres Jóvenes). Non eskuratu? [www.mujeresjovenes.org](http://www.mujeresjovenes.org) helbidean. Bertan, hau eta beste hamaika material lortu ditzakezu klik bakar batean.

### Labur //

Xake mate! Aisialdian jolasen bidez sexismoari aurre egiteko aholku sorta



Urtxintxa Astialdi eta susperketa sozokulturalerako eskola. [bulegoa@urtxintaeskola.org](mailto:bulegoa@urtxintaeskola.org)

Lesbianismoa Mugimendu Feministaren eta Lesbianen Kolektiboen baitan

Aldarte Gay, Lesbiana eta Transexualen arreta zentrua.  
[web@aldarte.org](http://web@aldarte.org)



Libro de estilo para evitar el sexismo en los medios de comunicación

Bilgune Feminista.  
[ehbf@bilgunefeminista.org](mailto:ehbf@bilgunefeminista.org)



### Hezkidetza gida

Bilgune Feminista.  
[ehbf@bilgunefeminista.org](mailto:ehbf@bilgunefeminista.org)



Beldur barik! Indarkeria sexistaren aurkako gida. Neska mutilentzat! Berdinsarea.  
<http://avatarberdintasuna.blogspot.com/>



## Publizitatea //

# ORAIN

# AHORA, HASTA LOS



URTERA ARTE

AÑOS



## GAZTE-TXARTELIA

14 eta 29 urte bitartean, entre los 14 y los 29, edukitzea da normalena. Entre los 14 y los 29, lo normal es tenerla.

gzt [gazteaukera.euskadi.net](http://gazteaukera.euskadi.net)

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA GAILA  
Gizarteria eta Gizaarte Elkartzarako  
Zuzendaritza

GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Dirección de Juventud y Acción Comunitaria

*Ama, izeko, lehengusina,  
alaba edo amuma,  
detaile txikiz osatzen denez  
gure garaipen bilduma,  
kirol munduan nahiz kulturgintzan  
iritsiko da eguna,  
zapi more bat txapel beltzaren  
ordez jantziko duguna*

*Miren Amuriza*

# AHOTIK at



**Araba:** Ramiro de Maeztu, 15 behe – 01008 – Gasteiz / 945 22 06 01 gasteiz@egk.org

**Bizkaia:** Autonomia, 44 behe – 48010 – Bilbo / 94 443 61 43 bilbao@egk.org

**Gipuzkoa:** Andia, 11 Nagusia – 20004- Donostia / 943 42 97 67 donosti@egk.org

[www.egk.org](http://www.egk.org)